




GOIERRITARRA

Goierriko euskaldunen aldizkaria

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

O-1 zenbakia. 89ko azaroa. 150 pzt/a.



Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



Si quieres un buen plan
cuenta con la Caja.

Para que encuentres el Plan a tu medida, sólo tienes que decidir cuál o cuáles te convienen más.

Para que en el futuro, las cosas salgan como tú las hayas previsto.

PLAN DE PENSIONES

PLAN DE AHORRO ASEGURADO

PLAN DE AHORRO

Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezen.

Zuk nahi duzun bezala.

PENTSIO-PLANA

AURREZKI-PLAN ASEGURATUA

AURREZKI-PLANA

AURREZKI-KUTXA
MUNICIPALA



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Goierriko euskaldunon aldizkaria

O-1 zenbakia. 89ko azaroa. 150 pzta.

Argitaratzailea: **Goierritarrak elkarte**.
Torrea etxea, behe (alondiga), 3, lokala.
124 posta kutxa, Ordizia.

Orain arteko Udalerri laguntzaileak (dirulaguntza eman edota agindu digutenak):

Beasain
Idiazabal
Olaberria
Lazkao
Ordizia
Itsasondo
Legorreta
Iruerrieta
Gaintza
Zaldibia
Arama

Erredakzio taldea: Josune Agirre (publizitate), Jon Mikel Arano, Aitor Larrañaga, Koldo Zubeldia.

Aholkularitza: Tere Irastortza, Xabier Mendiguren, Andoni Sarriegi.

Ale honetan kolaboratu dute: Payi Aseginolaza (anagrama), Gema Montero Arrugaeta (azala eta zenbait argazki), Lorea Agirre, Alberto Aldasoro, Edurne eta Amaia Alustiza, Juan Jose Agirre, J.M. Agirrezabalaga, Dionisio Amundarain, Jo-xemartin Apalategi, Mikel Aramendi, J.M. Arandia, Elena Aseginolaza, Xabier Barandiaran, Mirentxu Etchezarreta, Iñaki Hidalgo, Patxi Iraola, Tere Irastortza, Pello Iturrioz, Ion Imanol Iturrioz, Mari Joxe Mada-riaga, Mikel Mendizabal, Xabier Mendiguren, Iñaki Murua, Andoni Sarriegi, Mikel Untzilla, Patxi Zubizarreta, Aitor Zugasti.

Gure eskerrik beroenak: Itsasondoko Udaletxeari, Ordiziako Udaletxeari, Arlote Irratiari (adierazpen askatasunaren alde, irrati librea itxearen aurka), Goiztiri AEK, Argia Aldizkariari (Petri askatu!), eta era batera edo bestera (beharrezkoa dugun publizitatea eskaini diguzuenoi ere, GK, AKM, besteak beste) laguntza luzatu(ko) diguzuen guztioi.

Fotokonposizioa: **ANTZA**
Inprimategia: **GERTU**
Lege Gordailua: **SS 926/89**

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Bildu, berotu eta poztu

BA ZEN GARAIA, BAZENEZ HORRATIO!

Joan zen uda eta neguan sartzeko preparatiboetan hasi gara. Uda partean lanari horzka ekin genion txingurrien gisan projektu honen etorkizunean sinistuta geunden lau txorook, gauzen egoeraren hoztasunaz mintzatzen zitzaizkigun ezkorrei kasu handiegirik egin gabe (ez genekien ze enbajadatan sartzan ginen!), eta bai ordea konplize bilakatu zaizkigunen animoei esker, eskuarte, edo buru-kaskoan hobe esanda, genuena azalduz, makina bat aldiz bilduz eta azkenean proiektu eta manifestu bat argitara emanaz.

Eta, laburtzeko, «Bagara, ez gara edo zer gara?»-ren tankerako galdera-salaketa bota genuenetik askotxo aurreratu dela esan behar da. Izan dira mila oztopo, burokrazia eta burugabekeria; hamaika itxarote, ezuste eta esne-txar; ez bi eta hiru fede-txar, zalantza eta ezintasun. Aldi berean izan da jende suturik eta lagundu gaituenik. Ez daude ahaztuta.

Hainbat eta hainbat horrelako izango ditugu, hala-beharrezkoa dela dirudi, are gehiago hemen, mendian, Goierrin, eraturiko ezer ez dagoenean (eta hala ez balitz, etorri dadila «badago» esango duena, borondatea eta edozernolako azpiegitura badela esango diguna, gustora hartuko genuke eta. Esate baterako, oraindik ez zaizkigu eskaini eskatutako bitarteko eta baliapideak, Udalerri guztiek ez dizkigute agindu beren dirulaguntzak, zerbitzu publiko gisako izateko bo-kazioarekin sortzen garela jakina izan arren).

Baina txarrena pasa da, lehen pausuak emanak di-tugu eta non sartua badugu behintzat eta gaitzerdi. Bertako euskaldunok batuko gintuen organu eta kul-tur tresnarik ez genuen, beste zenbait eskualdeek be-rea badutenean, eta arrakastatsua kasu askotan, ber-tako hiltun, irakurle eta arlo ugaritako jendearen po-tentziala kontsideragarria denean. Azkenik hemen ga-ra, edozeinen aurrean bizirik, tente eta itxuroso ahal bada jarraitzeko gogoarekin azaltzeko esperan-tzan.

«Bildu, berotu eta poztu» izan liteke gure lema, orain, bagarenean.

Goierritarra hilabetekaria izango da hasiera ba-tean, zabala eta pluralista edozeren gainetik. Honen atzetik gabiltzanok ez dugu helburu politiko inmedia-torik. Alderdikeria begibistakoek ez dute izango leku-rik hemen, argi eta garbi esanda, ez ditugu sakaba-natu behar indarrak. Hutsune bat bete nahi dugu, es-pazio bat aurkitu eskualdearekin eta gorrierritarrekin zerikusi duten berri, gertakari eta beste geuregana-tuz, eragin sozio-kultura sortuz eta Goierriko gauzak «Beterri»etara eramanez.

Ze ez al du nahikoa lan ematen euskara hutsean eta baldintza desegokietan jardun behar izateak! Goierriko panorama orokor eskasari erreparatuz ge-ro baietz esango genuke. A ze astakeriak ikusteko gauden oraindik hortik baino seguruago hemendik! Horiei frenua jartzen ikasi beharrean gaudelakoan, gure medio apurrekin saiaturako gara horretan.

Erdara seguruago dabil parte honetatik eta hortxe gure helburua, anagraman ikus daitekeen legez: gure **goierritar**-txoa patxadaz baina datorkigun erdal uholdeari eutsiz ibiliko da, bailadako jendearen iza-e-ra eta balioek ematen duten konfidantzarekin eta pa-rajeon eta parajeotakoon sona eta karisma ohi eta faltsuak sortzen duen inpotentziarekin. Ea aldizkaria-ren irakurle, kolaboratzaile eta interesdun andana osatzen joaten garan. Zuekin egon nahi genuke gehie-nean ere edozertarako.

Segidako orriotan ikusiko duena lehen saiotzat jo behar du honen irakurleak, horrela atera zaigu, ez du derrigorrez horrelakoa izan behar, denborak esango digu geuri ere zeri eman, zer neurritan, nora egin be-har dugun, e.a. Non edo hara izan dadila behinepein eta gera bedi hau dagoen horretan, horretan gauden bitartean.

GOIERRITARRAK

Intereseko Telefonoak

Orokorrak

Zumarragako Eritetxea	721614
Donostiako Erresidentzia	453800
Gurutze Gorria	272222
DYA	464622
SOS Deiak	088
Eguraldi informazioa	094
Errepideen egoera	288888
Ertzantza (Beasain)	887350
Suhiltzaileak (Ordizia)	881362
Renfe (Beasain)	880853
Sarasola Garraioak	880710
Pesa Garraioak	880668
Estellesa	452949
Itxaropenaren tfna	458005
HIES-SIDARI buruzko tfna	282666
Toxikologia inform	912620420
Alkoholiko Anonimoak	276618
Goierri Lanbide Eskola	880062
Maizpide Euskaltegia	889231
Goiztiri AEK	889174 / 889340
Segura Irratia	801041 / 801341
Arlote Irratia	888093

Arama

Udaletxea	888953
Telefono publikoa	880739

Ataun

Anbulategia (S. Martin)	881025
Udaletxea	881011
Anbulategia (S. Gregorio)	881251

Beasain

Anbulategia	880759
Alkartasuna Lizetza	887191
Hotel Urteaga	880850
Larrialdiak	880967
INB	880753
Loinazpe Ikastetxea	882644
Udaletxea	885900
Udal Euskaltegia	889094
Udaltzaingoa	881355
Zaharren Egoitza	884804
Taxiak	880367

Ezki-Itxaso

Udaletxea	721303
Telefono publikoa (Ezki)	720267
Telefono publikoa (Itxaso)	880315
Gasolindegia	721717

Gabiria

Udaletxea	880734
Telefono publikoa	881384

Gaintza

Udaletxea	889564
Tfno. publikoa	880274

Idiazabal

Anbulategia	801173
Udaletxea	801064
Eskola publikoak	801726

Ikaztegieta

Udaletxea	652171
-----------	--------

Itsasondo

Udaletxea	881170
Eskolak	887704
Medikuetea	881359

Lazkao

Udaletxea	886408
Anbulategia	882632
S. Prudentzio Ikastetxea	882630
S. Benito Ikastola	880800

Legorreta

Udaletxea	806225
Eskolak	806014
Izarra ostatua	806044
Taxia	806170

Mutiloa

Tfno. publikoa	801166
----------------	--------

Olaberria

Udaletxea	889193
Eskolak	881232
Castillo Hotela	882011
Tfno. publikoa	881111

Ordizia

Udaletxea	885850
Anbulategia	880967
Eskolak	882780
Kontsumitzaileen Bulegoa	881642
Kultur Etxea	881280
Gaztetxea	888093
Oianguren BIN	880862
Suhiltzaileak	881362
Udaltzaingoa	884005
Taxiak	881486
Zaharren Egoitza	888377



Ormaiztegi

Udaletxea	882660
Anbulategia	888432

Segura

Udaletxea	801006
Anbulategia	801919
Eskolak	801776
Igerilekuak	801775
Aingeru Zaind. Aterpetxea	801010
Hospital	801008
Segura Irratia	801041
Taxi	801170

Zaldibia

Udaletxea	880357
Anbulategia	880027
Eskolak	884521
Etxabe Autobusak	884105

Zegama

Udaletxea	801115
Anbulategia	801351
Eskolak	800042

Zerain

Udaletxea	801724
Medikua	801136
Telefono Publikoa	801183

Herrietatik Goierri. Azaroa. Non-zer berri

BEASAIN

- Ikastaroak: Zeramika, Sukaldaritza, Saskigintza.
- Gazteentzako Dantzaldiak: Azaroak 12, Izadi Taldearekin, Azaroak 16 Akelarre Taldearekin.
- Erakusketa: «Burdina. Burdingintza eta Forjaketa Tradizionala». Azaroaren 20tik Abenduaren 10era.

IDIAZABAL

- Azaroak 16, Osteguna: «MALI»ri buruzko Diapositiba emanaldia. 8,30tan, Kultur Etxean.
- Azaroak 25, Larunbata: Mikel Laboaren kantaldia. 22,30, Pilota Lekuan.
- Azaroak 30, Osteguna: Yalun-Kang (8.505 m) Azpeitiako Espedizioa. 8,30tan, Kultur Etxean.

ITSASONDO

- Azaroak 18, larunbata: «Ama begira ezazu» antzeslana ERROTA Pilotalekuan.
- Jostgintza ikastaroa ihardunean. — Sukaldaritza ikastaroa berehala.

LEGORRETA

- Pintura Ikastaroa. Makrame Ikastaroa. Egur Taila Ikastaroa (Esna! Zurgindegian). Dantza Ikastaroa: TANGO, VALS, ROCK eta FOX Dantzak (Larunbatetan).

OLABERRIA

- Tapizeria Ikastaroa. Makrame Ikastaroa. Gimnasia Ikastaroa.

ORDIZIA

- Bach Astea:

• Azaroak 9, Osteguna: ZARA-BANDA Hirukotea. 19,30, Barrena Kultur Etxean.

• Azaroak 10, Ostirala: JUAN CRISOSTOMO ARRIAGA Kamara Orkestra. 19,30, Barrena Kultur Etxean.

- Azaroak 11, Larunbata: Bachen Moteteak. Donostiako Ereski Abesbatza eta Kamara Orkestra. 19,30tan Parrokian.



- Azaroak 18, Larunbata: OROITHE Abesbatzaren (Helduen Saila) KONTZERTUA: Madrigalak, XVII. mendea, Folklore, XX mendea. 20, Parrokian.
- Azaroak 17-24: KIROLARI BURUZKO ASTEA. Asteazkenetik bideo-emanaldiak Barrena Jauregian.
- Azaroak 17, Ostirala: Hitzaldia: «Elikadura eta Osasuna Kirolean». 19,30, Kultur Etxean.
- Azaroak 24, Ostirala: Hitzaldia: «Ariketa fisikoa eta kirolaren planifikazioa». 19,30, Kultur Etxean.

- GOIERRIKO PAP-COPEk** antolatutako Hitzaldiak, hezkuntza dela eta:
- Azaroak 7 eta 10ean: Beasaingo Alkartasuna Lizeoan. Azaroak 14, 23 eta 29an Ordiziako Barrena Jauregian.

GAZTETXEAN:

- Ostegunero eta igandero bideoak (pelikulak eta musikalak) eta diapositibak.



- Futbito, Damak, Xake eta Kanika Txapelketak.
- ADIERAZPEN ASKATASUNA: REN ALDE ETA ARLOTE IRRATIAREN TXAPELOAREN KONTRAKO ASTEA, Azaroaren erdialdera: Hitzaldiak, kontzertuak, eta era askotariko ekintzak.

TOLOSako NAZIOARTEKO TXONTXONGILO JAIALDIAREKIN BAT:

- Azaroak 27, Astelehena: Eskola umeentzat Antzokian goizez NORWICH PUPPET Talde ingelesaren eskutik txontxongilo emanaldia.


Arratsaldeko 19,30tan, Sesio irekian SUFOREL frantses taldea.

- Azaroak 28, Asteartea: Umeentzat goizeko 10,30tan TARGOVISHE talde bulgariarra.
- Arratsaldeko 19,30tan denentzat PETIT MIROIR.

ORMAIZTEGI

SAN ANDRES JAIK

- Azaroak 26, Igandea: ZIKLO-KROS.
- Azaroak 27, Astelehena: Perritxikuei buruzko hitzaldia ARANZADI-koen eskutik.
- Azaroak 28, Asteartea: Mendi-Dia-positibak.
- Azaroak 29, Asteazkena: Berbena Txarangarekin.



- Azaroak 30, Osteguna, San Andres: III Odolki-Txapelketa. Zahar eta umeentzako (kar kotxeak) ekintzak. Berbena Txarangarekin.
- Abenduak 1, Ostirala: Herri afaria eta Berbena.
- Abenduak 2, Larunbata, Umeen eguna: Ume-Damborrada. Espumate (umeentzako joku bat). Zuhaitz-landaketa. Nafar-Jotak. Giñola. Pilota partidua: Idiazabal-Azkoi-tia (finalistak). Berbena eta mozo-rror-lehiaketa. Sokamuturra.
- Abenduak 3, Igandea: Bertsolariak, Pailazoak, Herri kirolak, Berbena Txarangarekin.
- Festekin batera III ARGAZKI-LEHIAKETA eta Pintura eta Eskultura Erakusketa ARTE LEKUn

SEGURA

- Azaroak 5: ZAHARREN EGUNA: 11,45: Udaletxean elkartu. 12: Meza. 14: Zumarragako Etxeberrin BAZKARIA. Bazkalostean bertsolariak, trikitixa eta opari-zozketa.

ZALDIBI

- Argazki Ikastaroa.

ZEGAMA

- Azaroak 11, Larunbata: Eskualdeko Ganadu-Azoka eta Erakusketa. Eguerdian bazkaria.

IRRATIAK AIDEAN



SEGURA IRRATIAREN PROGRAMAKETA

Astegunetan

- 8retan: GAUR ERE EGIN DEIA (A diario en Segura Irratia): Egunkariak errepasatuz.
- 9,30-10: KALEJIRA. Euskal Musika, jendearen agurrak.
- 10retan: Meza Santua.
- 10,30-12,30: Gurekin al zaude? MAGAZINE. Lehiaketak, erreportaiak....
- 12,30: KIROLAK.
- 13: Eskainitako doinu eta abestiak.
- 15-16: Gure entzuleen musika.
- 16,30-19: Lagunartea: Irratsaio musika.
- 19-20: KOTATIK. Euskal musika eta Oharrak.
- 21: Gure Herria. Albiste emanaldia.
- 21,30-22: Panorama. Albisteak, musika tartekatuz.
- 22-24: Compact.

Aste Bukaeretan

- Larunbatetan: — 8-10: Oharrak eta Musika.
- 10retan: Meza Santua.
- 11-12,30: Oilo-Salda: Saltsa gazi-geza ugari.
- 13: KIROLAK.

Igandetan

- 8-10: Musika eta oharrak.
- 10-11: Trikitixa-Saioa: Zuzenean jotzeko inguratzen zaizkigu Goierriko trikitilari gazteak.
- 11etan: Meza Nagusia.
- 4retatik aurrera: Arratsalde Pasa: Musika eta Txaskarrioloak.

ARLOTE IRRATIA

Astelehenetik Ostiralera egunero Informatiboa (22-22,30).

- Astelehena: Eguzki, Goierriko Ekologista Taldea (21-22). «El moco que camina» (22, 30-24).
- Asteartea: Euskal Herrian Euskaraz, Goierriko Emakumeak (21-22). «El kartasunaren ahotsa» (Askapena) (22,30-24).
- Asteazkena: Jarrai (21-22). «Miercoles Merkaú» (22,30-24).
- Osteguna: Gestorak (21-22). «En la barra del bar» (22,30-24).
- Ostirala: Musika Desberdina (21-22). «Baratzaren erdian» (22,30-24).

GOIERRITARRA INKESTAGAI

Galdera: Zer derizkiozu Goierrirako euskarazko aldizkari bat sortzeari?



Doinua: Frantses euskaldun bat.

Mundu zabalaz asko dakigu bizilagunaz ezer ez, prentsa kontuan goierritarrek erabat gaude aldrebes; denon artean lan piskatxo bat egin behar derrigorrez, gora beherak kontatzeko ez gaitezen egon beldurrez.

Elkarriketak, erreportaiak, kronikak ta albisteak, iragarkiak, literatura, abisu eta txisteak; denetarik izango dugu pozgarri eta tristeak; batek irakur ahal izateko idatzi behar besteak.

Batzuk txistua jotzen dakigu beste batzuek kitarra, idazle eta irakurleak hemen gaude barra-barra, kirolarioi ez zaigu falta ezer egiteko garra... Laguntzarako prestu gaudenez alimo GOIERRITARRA !!!

Mari Joxe Madariaga
Bertsozalea

Nik uste dut oso beharrezkoa dela bertako informazioa. Askotan pentsatu izan dut Goierriko herriotan zer gertatzen denaren berri eduki behar genukeela. Badakigu zer gertatzen den gure etxean, aldamenekoan edota gehienez auzoan baina ez dakigu bailada osoko herrietan zer gertatzen den. Ziur nago gauza asko gertatzen direla, kezka ugari daudela. Horiek denak bildu eta zabaltzea mesedegarria izango da, denon onerako.

Bestalde, gazte eta gaztetxo asko ikusten dut ari direla euskaraz, erderaz ere bai, baino, eta pentsatzen dut ikastolatik hasi, segi kalean mintzatzun eta aurrera atera litekeela. Goierrin paper bat joka dezake aldizkariak. Ez gaude batere ohituta euskaraz irakurtzen. Geurotatik hasita erdarara jotzen dugu askotan, errezenara. Mundu honetatik zehar ere badira hainbat eta hainbat herri-aldizkari nahiz eta guk ez izan astialdi gehiegirik haiek erosi, ulertu eta irakurtzeko.

Ea suerte ona duzuen herri aldizkari honekin eta denok poztan garen eskuetan edukitzean.

Jokin Mujika
Txirrindularia



GOIERRITARREI agur t'erdi,

Zuen eskutitza hartu dugu eta poztan gara herrialdeko euskal aldizkari bat argitaratu nahi duzuela jakitera. Gaur egun geu ere gure hizkuntzaren alde gogotik saiatzen gara, baina ez bankuen alde. Hori dela eta zuen harpidetza txartela ez dugu onartzen. Gure laguntasuna nahi baduzue, zuen kontu korrontearen zenbakia bidali. Posta kutxa zenbakia ere ez dugu gustokoa, hori eta VISA txartelak lanpostuak kendu eta giza-harremanak kentzeko aukerakoak. Aldizkari franko badago gure Herrian, baina euskaraz hitzegiterik ez inon.

Anonimoa



Gaurko gizartearen informazio-desinformazio bide eta moduak ezaguturik eta agentzien bidez mundu osoko berrien bonbardeoaren mende gabiltzanez, oso premiazkoa deritzot asmo berri honi, izan ere, urrutiko albisteen eraginak bertako egoeraren berri jasotzea galarratzeaz gain, ahaztu eraztea bait dakar.

Goierrri bailadako berri zehatzak eta goierritar edonork adieraz ditzakeen kezka eta asmoek leku gehiago hartuko dute eguneroko bizitzan, etxekoago egingo garelarik alde batetik, eta bestalde, euskara hutsez izango denez, geuk gertutik bizi ditugun gora-beherak geure hizkuntzan jaso ahal izango ditugu, material baliagarri gertatuko delarik euskalduntze lanetarako.

Hizkuntza bat, ordea, ez da ideia abstraktua, erabilerak eta kasu honetan irakurtzeak ematen dio balioa, beraz ahalegin honek, bailadako euskaldungoari euskal irakurle izan gaitezen konpromezua sortzen digu, nahiz eta jakin, benetako neurri politikorik hartzen ez den bitartean ez duela euskarak nahi duen irtenbiderik aurkituko.

Hala ere badut kezkarik aldizkari honen diru-iturriak direla eta, besteak beste, erakundeen babesean emango bait ditu lehen urratsak eta normala den bezala, euskara edo beste zenbait alorretan, erakunde beroiei kritika zorrotzak egiteko aukera emango duen aldizkari hau subentzionatuko ote dute luzaroan? Bejondeiela, horren jokabide demokratikoak ez dira eguneroko ikusten, tamalez!

Iñaki Murua
Bertsolaria

Lehendabiziko eta aurkezpenetarako 0 ale honekin sortzen den GOIERRITARRA aldizkariaren inguruko eritzia eman dezadan eskatu didatenez, gure gizarte honetan euskararen erabilpena indartzean bete dezakeen rol garrantzitsuen aipamena egin nahi nuke, bakar bakarrik.

Goierrri eskualde oso euskaldunaren fama badu ere badut ene susmoa ez ote den herri handienetan, behintzat, hotsa izana baino gehiago. Bestalde, une honetan Euskadi osora zabaltzen den euskal prentsa bakarrik dugu eta badirudi gugandik oso urrun dagoela, interes txikia sortarazten bait du (adibidez, Argiak 285 harpidedun bakarrik ditu Goierrri osoan).

Agian, eta goian esandakoa aztertzeko hasi gabe, bere informazioa eta gaiak hemengoak izateak jende gehiago bultzatuko du euskaraz irakurtzera, aurrera-pauso nabaria, bestetik, eta ondorioz Euskara erabiltzeko kontzientzia ere sor lezake. Hala bedi.

Peio Iturrioz
Ordiziako Udaletxeko
Euskara-Arduraduna



«Goierritarra» izeneko aldizkari baten proiektua helburuetan ona eta errealista derizkiot, goierritar guztiok bultzatu beharrekoa. Beti hain euskaldun eta langile izan den eta den eskualde honek merezi ez-ezen derrigorrezko du bere bizi-arnasaren adierazpen desberdinak jaso, aztertu eta komunikatzeko gai izango den idatzizko tresna egoki bat.

Juan Jose Agirre
Lazkaoko Beneditarren Liburuzaina



Gipuzkoa mailan baditugu euskara hutsean burutzen diren zenbait aldizkari, aldiz, harrigarria badirudi ere Goierrri alde honetan, eskualde euskaldunenetarikoa izan arren, ez dugu bertako euskal aldizkaririk ezagutu gaurdaino. Beraz, argitaratzeaz dagoen GOIERRITARRA aldizkari honi gure ongi etorria luza nahi geniok, goierritar guztioi lagungarri gerta dakigulakoan gure eguneroko egin beharretan. Euskaldun berri eta zaharrok hitzegiteko bezala irakurtzeko ohitura ere gure egin dezagun.

GOIERRIKO GOIZTIRI AEK

Goierrri mailako aldizkari baten argitarapena aspaldidanik aipatu izan den premia nabarmena dugu. Betidanik Adierazpen Askatasunaren aldeko burrukan Arlotek ezin du begi onez baino hartu eta kalean ere horrela hartua izan dadila espero eskualde mailako kultur jario eta intentzio ezberdinak bildu nahi dituen aldizkari hau.

Baina ez da, dena dela, hau inportanteena: Erronka honen berezitasunik interesgarriena osoa euskara hutsean joatea da, eskergarria baino eskergarriagoa dena, Euskararen erabilerari batez ere moeta honetako ideia eta aldizkariak eman behar dioten bultzadaren isla.

Guzti honetaz gain ideia hau ekonomikoki zein moralki bailadako erakunde ezberdinek (Udaletxeak hain zuzen) babesten badute, orduan eta hobeto!, guztiz positiboa iruditzen bait zaigu diru publikoa antzeko kultur-ekintzetan erabiltzea kultura mota bat desbideratu edota baldintzatzearen atzetik dabilen hainbeste diru-partida xahutu ordez.

Azkenik gure pozkarioa agertu nahi dugu proiektu kultural eta informatibo batek politikoki hain ezberdin diren Udalen apoioa duela ikustean.

**HURRENGORARTE ETA
SUERTE ONA IZAN!!**

ARLOTE IRRATIA

Egia esan, aspaldidanik buruan darabilkidan gauza duk hori. Alde askotatik ikusten diat egoki baino egokiago horrelako aldizkaria; are, beharrezko edo premiazko ere bai. Nahi baduk, bitan bilduko diat askotarikotasun hori: batetik, euskarari eusteko eta eragiteko beste tiradizo bat gehiago izango huke; bestetik, sakoneko komunikaziorako bide edo aukera.

Ez duk erreza intuizio bat hitz bitan plasmatu edo plazaratzea. Gainera, uste diat, lehen intuizio hori mila txertuz eta adarrez jantzi beharko litzatekeela arian-arian. Kaskoan dudan aldizkariaren egitekoa, hutsune handi bat betetzea izango huke. Baina, zein hutsune?

Lehenik, jakin beharko geniake, komunikazio-gaietan, Panamakoa eta antzekoak bezain garrantzizkoak direla geure inguruan gertatzen diren «gauzatxoak».

Bigarren, gauza txiki horien sailaren berri eman eta hartzeak, jendea aberastu eta motibatu egiten dik (gaurko hizketa-moldea erabiliz) jendea enroilarazi egiten dik, eta



desblokeatu.

Hirugarren, jende guztiak hurbi-letik ezagut dezakeen gauza baten berri eta interpretazioa —nahi ez bada ere, beti ematen bait duk heure interpretazioa— ematean kontuzago ibili beharko dik kazetariak, eta irakurlea ere erneago jarrerazten dik; zer ematen dioten eta zer ez ikusteko, baliabide gehiago bait dizkik. Ezin sartu ziria hain erraz.

Hitz batean, honelako gauza xehe eta hurbilekoetan, komunikazioa ez duk norabide bakarrekkoa; baizik eta, ematen zaion berriaren aurrean jendeak erreakzonatu egiten dik. Orduan gertatzen duk komunikazioa egiazko: hartu eta eman, eman eta hartu.

Eta azkenik, gauza koxkor eta hurbilekoetan horrelako buru kritiko argi komunikatiboa landuz, hedadura zabalagoko makrokomunikabideen aurrean jatorrago jokatzeko eta erreakzionatzeko bidean jarriko huke jendea.

Dionisio Amundarain
Maizpide Euskaltegiko Zuzendaria

GERRIKO

liburudenda

- Liburuak
- Diskoak
- Jostailuak
- Eskola materiala
- Bulego materiala
- Opari gaiak
- e.a.

elosegi, 16 - ☎ 943 - 886500
20210 lazkao - gipuzkoa

1.000 Aletako tirada izango du GOIERRITARRAK hasiera batetan; Goierri osoan, komertzio, taberna, kiosko eta harpidedunen bidez banatu beharrekoak. PUBLIZITATE TARIFAK honako hauek izango dira:

BARNE ORRIALDEA

Orrialde osoa.....30.000 pzta.
Orrialde erdia15.000 pzta.
Hamarreko moduloa.....3.000 pzta.

ATZEKALDEKOA

Orrialde osoa
(zuri-beltzez)40.000 pzta.
Orrialde erdia
2 koloretan.....50.000 pzta.

Publizitate hori argitaratu ahal izateko zuen etxearen fotolito, tarjeta, anagrama e.a.en bila pasatuko ginatke, (beste zenbait aldizkarietan edo herrietako festetako programa edo karteletan ateratako zeun moduloak aprobetxatu genitzazke). Fotolito hori (k) hurrengo zenbakietarako guk gorde ahal izatea eskatuko genizueke, gauzak erretearren. Gainantzean urte osorako ala hilabete bakoitzean hilabete horetako publizitatea egin nahi duzuen, zuen esku daude noizkoak eta nolakoak.

Harremanetarako, gure POSTA KUTXA Ordiziako 124.a da; diru sarrerak GK-ren Ordiziako sukurtsala, KONTU KORRENTA-REN zenbakia: 01 1.427.276-8.



EROS, IRAKURRI ETA ZABALTZAZU GOIERRITARRA

Debaldeko iragarkia
orria izango da.
Testua idatzi eta bidali
gure bulegoetara
GOIERRITARRA
124 psta kutxa.
ORDIZIA

BALIZKO KOLABORATZAILEEI DEIA:

Herrietako, baita txikienetako, kolaboratzailerik gabe ez gara izango. Banakakoen nahiz taldekoen herri bakoitzeko kronikak, berriak, balorapenak gustora hartuko genituzke. Beren txokoa izango lukete.

Era berean kolaborazio literario, bai periodistikoak baieta artistikoak baita edozernolako argibide, lan idatzi, eritzi, argazki lanak e.a. zinez eskertuko genituzke.

Momentuz telefonorik ez dugunez, Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali ditzakezue lantxo hoiek.

Etxe honetako ateak ez dira ixten, parez pare, alderikalde zabalik ditugu parte hartu nahiz gero.

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA..... D.P.....
HERRIALDEA..... TLF.....

DIRUSARRERAK: GK: 01*1.427.276-8
Ordizia


TESTUA: _____

**Urtebeteko
harpidetza
saria
1500 pzta.**



124 posta kutxa. Ordizia

ERAKUSKETA
SUKALDEKO TRESNAK




Meriaratz, 4

: 88 86 84

20200 BEASAIN (Gipuzkoa)

Urdaneta, 68

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN



EROSLE - ZUBIAURRE
Autoserbitzua

Elosegi, 11

LAZKAO



auto-eskola ORDIZIA

LA UNION Y EL FENIX - ASEGURAK

Grupo Padre Urdaneta, 10
Teléfono, 88 72 76

ORDIZIA (Gipuzkoa)

AUTO KONPONKETA — MARGOKETA

GAUR, C.B.
Karrozeria

B.º San Prudencio - C.º Mendizabal
Teléfono, 88 86 09

20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

**URKI
KOMERTZIALA**

- Pintura gabeko errotulaketa eta ordenadorezko diseinuak
- neon, plastiko, inoxidable, latoi, e.a.eko errotuloak

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:

Domingo Unanue Enparantza, 2 | Telefax: 88 93 20
Telf: 88 86 71 | 20240 ORDIZIA

**GENERALI
Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 - Tfnoa: 88 87 02
20200 BEASAIN

- Zerbitzu zuzenak furgonetarekin
- Zerbitzu nazionalak
- Zerbitzu internazionalak

gaur
express

mensajeros-mezulariak

BEASAIN 88 89 38
88 83 17



**ERROTAUNDI
OKINDEGIA**

Elosegi Kalea, 2 - Teléfono, 88 74 90 LAZKAO



GIZON OSO BAT JOAN ZAIGULA

ETA ORAINDIK SINETSIEZINIK

In memorian Antton Ibarguren



Mikel Aramendi
Aitor Zugasti

Bere lagun batek galdetzen zuen bezala, «Nork heldu behar ziok orain, hire umore eta adorearekin, hik utzitako lanari? Jakin ezak pobre eta zokoratu guztiak kexu dabiltzala, orain nork defendituko dituen jakin nahian. Eta gure gizarteak handiagotzat jotzen dituenak ere, buruari hazkaka ari direla, halako balioa zuen gizonaren falta nola osatu aztertuz.»

Goierritarron aldizkaria sortzekotan ginela esan genionean, biziki animatu gintuen, esanaz zirikatzaile papera bete behar genuela eta edozer gauza eskatzeko lasai asko. Ez da izan posible. Hainbat jende omendu du Antton honez gero. Lehen alerako gure figura honen erreibindikapena nahi genuen egin, Goierritarrok ezin gintezke izan gutxiago eta lan hobeago baten zai, hona hemen gure aportapentxo.

Joandako Uztailak 13an hil zen Antton Ibarguren. Lehenik zurrumurru izan zena, azkenik hile bereko 21ean egiaztatu zen.

Legegizona lanbidez, lan-munduan murgildurik iragan zituen urteak; Gorteetarako HBtik diputatu izana besteak beste, Himalayako Gasherbrum IIaren elur eta izotzen artean geratu zen, 8.000 metroko altuera duen mendi hori koroatzera zihoanean nafar espedizioako beste zenbait kiderekin. Lubizi batek eraman zuen arrastaran Antton, eta nahiz eta erreskatatze lanetan aritu beste zenbait espediziotako hainbat lagun ere, ezin egin ahal izan zen gehiago bere gorpua aurkitzeko.

Antton Ibarguren 39 urte zituen eta, esan bezala, diputatu ohia zen, bere garaian Telesforo Monzonek utzitako hutsunea okupatu zuelarik. Koaliziaren partaide hasiera-hasieratik, Martutenen egon zen preso bes-

te bi kiderekin batera Gernikako istiluen ondoren.

Autodeterminazioaren gaia jorratu izan du gehienbat, argitalpenen bidez eta Euskal Herri osotik barrena hitzaldi eta mahai-inguruetan parte hartuz. Lan munduko legegizon gisa «Berdin» kolektiboaren sorreran egon zen eta birmoldaketa industriala pairatu duten langile taldeen alde aritu den abokatuen belaunaldiko figura bat izan dugu.

Altzagako seme iaioa bere bulgoko lanaz kanpo makinabat egindakoa da gurasoen baserrian, Urruti-Garaikoan ere. EHNE nekazal sindikatuaren legalizazioaren pisua bere gain egon zen; baserritarren aholkularitzan eta zerbitzuan beti, eginahalak eginga kolektibo honen negoziaketetan, ehun baino baserri gehiago izango omen dira baserritarren jabetzan geratu zirenak bere lanei esker.

Lagun eta familiarteko guztien hitzetan Antton gizon nekaezina zen, euskara eta kulturaren alde aritua dela ezaguna da gu guztiontzat. Abokatuen Kolejioko Euskara Batzordearen koordinatzaile lanetan eta legedi hiztegi batean ari zen orain gutxi arte. «Zehatz» euskarazko soziologia aldizkariaren sortzaile eta zuzendari, UEUn zen gehienetan.

Bazituen beste zenbait afizio ere, hemendik aurrera aipatuko ditugunak, baina bat zuen kuttuna bereziki: mendizaletasuna. Afizio horrek eraman du gugandik. Betidanik eza-gutu izan dizkiogu Antton zenari zintotasuna eta gizon kabalaren zantzuak. Bere gorazarrez egindako lerrook gure esku ez dagoen beste lan osatuago baten aurrerapena izatea nahi genuke. Norbaitek arakatu beharko du haren bizitza eta obran, nahiz eta oraindano ezin sinisturik gauden denok ere.

AITAREN ETXEAREN DEFENTSAN

Antton zenak utzitako arrastoak aztertzeari ekin genion Altzagara igoz eta korroa egin zen gure inguruan. Bere aita mintzatu zitzaigun erabat emozionatuta. Ramon Ibarguren zioenez, hiru urtez gero lanean zen bere semea, baserriko lanean. Gainantzerako hiru senideak arrebak zituen eta txikitandik izan zen behartua etxeko mutila.

Egunen erditan eskola joan ez lanaren kausaz eta behin eta bitan galdetu omen zuen nola aterako zituen nota hobeak. Hala ere, azkarra izan eta garaiko Altzagako apaizak bultzatu bide zuen mutila seminarioruntz, «Hik ez duk inor baino gehiago ez gutxiago haizelako ustea izan behar». Hala joan zen aurrena seminariora eta gero Unibertsitatera.

Abokatu izan nahi zuela aitari. Aitak, ordea, bere semeak injinierru behar zuela izan. Injinierru ezetz, Anttonek: ez zela gizartearekin eta

jendeekin harremanak eukitzeko ofizioa. Ramonek esan zigunez, euskarazko klaseak emanez txanpon batzu irabazteko aukera izan zuen eta sagardotegi batean ere aritu omen zen, sagardoa egiten, pasadizu bitxi bat ere gertatu zitzaizolarik. Erakusten hasi omen zitzaizkion nola lan egin palarekin eta berak alderantziz egiten. Ezkerra izan.

Ramon hunkituaren hitzetan, «Antton jendarteko gizona zen alde guztietatik begiratuta. Ez zion politikari begiratzen. Hor zebilen beti, euskara zela eta langileak zirela; bere kontrakoei ere laguntzeko prest. Ez dut uste etsairik eduki zezakeenik. Baita juergan, pelotan edo bertsoetan, gaiak jartzen askotan. Gora horietara joateko zuen irrikia eta esaten nion, "Motell-motell! Hemen ere bazegok mendia hortik joan gabe!"»

«Nik beharra daukat. Pentsatzen eta pentsatzen, burutik nahastuko nintzateke», kontestatzin omen zion semeak eta negarra dagio aitari. Burua despejatzeko ahaztutaldiak beha-

rrezkoak zituela eta berarekin eraman omen zuen orain aztian. «60 urtekin ere joanda nago berarekin San Migelera eta Txindokira».

Bere aitaren esanetan, burua zekarkien nekaturik etxera eta gorputza nekatzea zuen eskape balbula. «Artea bazuen arbolan ebakieran, artetsua zen segan, alde guztietara ekin egiten zion. Gogorra zen lanean». Etxean gozatzen zekiena ei zen Antton, senideen testigantza araberak. Umezalea, hiru edo lau iloba igoal izango omen zituen buru, bizkar eta besoetatik zintzilik kendu ezinik, bazkaltzen ari bazen ere. Ezin sinisturik daude aita-amak. «Ez oraindik behinepein! Ez dago nahiean eta...!»

DORRE ALTUAGOAK ITZALA LUZEAGO

Altzagako plazan, «arteak» deritzan arbolaren itzalean elkarriketa espontaneoak sortu zen. Han ziren zenuaren osaba, lankide bat eta koina-

ALBARO REIZABAL abokatu ezaguna, Antton zenaren lankidea, zer edo zer idatzeko prest zegoen eta bai eta hitz egiteko ere. Baina, alde batetik Anttonek utzitako hutsunea nekeza da betetzen, lan ugari du, eta istorio tamalgarria berritzeko beldur zen bestetik.

«Berdin» kolektiboaren sorreraz aritu gara. 75.ean-edo ezagutu zuten elkar. Xehetasunak ematen dizkigu, Antton Madrilen egon zenekoaz eta handik ekarri zuen asmoa: abokatu talde baten sortu beharra. Ibargurenen ideia gauzatu egin zen. Kolektiboaren hasieratako E.H. osoko jende mordo bat aipatzen du Albarok, Iñaki Esnaola esate baterako horien artean.

Abokatu talde bezala, helburua langileen zerbitzuan egotea zenez, Gipuzkoa osoan bulego batzu montatu bide zituzten. Naiz eta hori izan asmo nagusia, preso politiko eta baserriarren kasuak eta kausak defendatzeari ez zioten uko egin. Reizabalek gogoratzen duenez, «Antton Michelin arazo famatuan ibili zen, amnistia laboralararekin ere asko... Errejistro liburua banu esango nizuke. Gehienbat eta bere lan garrantzitsuen krisi ekonomiko larria eta errekonbertsioa nagusitu zenean, bera ibili zela, enpresa handiak ixterakoan irtenbideak bilatzen langileek ahal zuten gehiena lor zezaten. Bitartekari gisa krisi espedienteak irekitzen zirenean, indemnizazio handiagoak lor zituzten. Bere papera oso garrantzitsua izan zen, zelan lortu zituenak lortu bait zituen eta, beno, oraindik fruituak lortzen ari gara. Besteak lortu ezin zutena lortzen zuen, gogorra zen negoziaketetan, espero ezinezko baldintzak lortzen zituen langileentzat. Esate baterako, gaur bertan duela 7-8 urte itxitako enpresa bati kendutako dirutza batzu banatzen ari gara langileartean, Antton egoskorra izan zelako.

Anttonen talantea adierazten diguten hitzak eta ekintzak. Hilda gero ere garaile. Zaila egiten zaio hitz egitea une honetatik aurrera Albarori. Emozionaturik, Antton lagun mina zuela, gogorra egiten zaiola hizketa egitea berataz eta «jarraitzen dugula, hemen, bere hutsunea bete nahian».

Nekazarien abokatu

Bere ezean nola hitz egin, Anttonen ekintza eta baloreetat. Hala ere ausardiaz jantziko naiz, bere zenbait alderdi azaltzeko. Hori bai, baserritarra zen Antton Ibarguren. Abokatu zen. Eta zeinek esan beraz baserritarren abokatu ez zenik Antton?.

Makina bat baserritar hartu zuen bere despatxuan. Norbera bere arazo bereziekin eta bakoitza bere istorioarekin. Baserritar lez, EHNE sindikatuaren sorreran, behar-beharrezko laguntza luzatu zigun, hala laguntza juridikoa nola gizaseme bezala.

Lege gizonaren erronka gabe ere, hainbat bileretan parte hartu zuen, nekazari eta sindikalgintza uztartuz.

Maiztertza legearen inguruan azken urte hauetan, ehundaka baserritar maizterrek hainbat urtetan bizi izandako baserriak eskuratu dituzte, EHNE sindikatuarekin batean Anttonen paregabeko lanari esker.

Orriak eta orriak beteko genituzke honela jarraituaz. EHNE sindikatu osatzen dugunok berari zor diogu gure izen eta izana. Eta Gipuzkoako baserritarren izenean ez dago agurrik, bakarrik gero arte. Egun handirarte, ez adiorik.

Alberto Aldasoro, EHNEko Lehendakaria

tu eta senitartekoak ere. Liburu bat osatzeko lain kontua bazuten. Bere ondoan geldirik ezin omen zen egon. Osaba baten esanetan, «Jendea lanera tiraerazi egiten zuen. Abogadutzan lana egiten zuela dudarik ez; hona etorri eta ikusi egiten genuen, berriz. Azpimarragarriak dira bi alderdiak. Zenbat mesede egindakoa den Antton! Lan eta lan eta pozik beti, umore batean. "Hau xe egin beharra zegok bada!". Bera aurretik, gu segika eta han ez zen atzera begira gelditzeko inor. Bizkorra zen, bera bezalakoa. Buru argia eta leiala, gauzak aintzakotzat hartu eta egiteko beti prest. Hemen, herrian ere, gora-behera asko izan dira. (Iruerrietako herrien arteko desanexioa bideratu ondoren, Itsasondo eta Alitzaga arteko asuntoan Anttonek gauzak ondo loturik utzi zituen eta prozesua aurrera doa, adibidez). Ez abokatu bezala, lagun bezala denak nahi zuten izan berarekin hartuemanik. Zu bide onetik ez bazindoazen, igoal alde batera pentsa-

tuta, "ez, hau ez duk hala, beste era hontara askoz egokiagoa izango huke" esango zizun».

«Berdin» kolektiboko lankidea zuen Bixente Ibarguren aitortzen zigunez, beti lanez gainezka zebilen Antton. «Ni ez naiz berarekin ados egon arazo askotan baina gauza bat zegoen argi: goizeko 6ak arte gelditu behar bazuen lanean, han geldituko zela. Nik, nire orduan, ospa! Maila horretan izugarria zen».

Hontan haren osabak hartzen du hitza. «Hemen ere berdin, e! Ez pentsa ordubatak edo ordubiak eman zutela eta lana, hola, bukatu antxean baldin bazuen, bukatu arteko onik eukiko zuenik! Bere emazte eta arrebak esango zuten hamaika aldiz, "lauak jo eta bazkaltzera azaldu ez!". "Ia bukatu genuen eta horixe bukatu egin behar". Gero bai, nahi baduzu juergatxoren bat, mahaia e.a., baina aurrena lanak eginda gero».

Bixenteren ustez gizon handi honek utzi duen hutsunea ez da nolana-

hikoa. «Abokatuen Kolejioko Euskara Batzordea berak zeraman eta ez hori bakarrik, Eusko Jaurilaritzarekin bat ikastaro batzu antolatzea ere bere gainean zegoen. Beharbada, utzi duen hutsunea handia da, pertsona bezala handiegia, Kolejio mailan zer esanik ez, eta Euskara Batzordearen arima zen. Nabarituko da bai, ez bada zerbait pentsatzen eta neuririk hartzen».

Bere izaeraren nolakotasuna erakusten zuten pasadizu batzuen kontakizuna egin zen gero, eta bukaera aldeko hitzak hartu genituen guk. «Hainbeste kasu gertatu zitzaion hari! Esaten zituenak batzuk eta esan gabe uzten zituenak gehiago...! Gu ez ginen enteratu ere egiten gehienek. Hura "deskantsatzera" etortzen zen; izen horretan, bulegoko lana uztera. Deskantsatzera ez dakit, zergatik hark egingo zuen burua deskantsatu eta beso eta hankak nekatu. Batzutan kontaktzen zituen hala-moduzko batzu, zerizkion batzu baina erdienekin ez ginan enteratu».

Amaia, Anttonen emaztea:

«Abertzaletasun kritikoa Anttonen praktika»

Mikel Aramendi

1989ko Iraila



Antton, bere seme eta ilobekin, gozo-gozo.

«Zehatz» aldizkariarenak eginda gero ezagutu zuten elkar, Kongresurako hautatu zutenean bere senarra izan behar zuena. Amaia ere Altzagan zen bere senarraren aldeko elizkizunean (Omenaldia nahiko gerorako utzi da, ez bait da gogo handirik oraindik), bere semeetako batekin. Tristura infinito bat antzeman genion aurpegian alargunari, neka-neka eginda balego bezala. Hala ere, hizketarako prest.

—Nola definituko zenuke zure senarra hitz batean?

—Bada zen asko ematen zuena; esijitu ere bai. Etxean oso gozoa, nahiz eta arazo profesionalak tartean izan. Gainantzean jenio bizikoa zen, baina azpimarragarriena asko ematen zekiela.

—Ezagutzen genizkion hainbat fazeta Anttoni, hartuak zeuzkan konpromezuak, baina harriturik utzi gintuen bere goimendizaletasunaren berriak.

—Beno, hori zen bere ilusiorik handienetakoa. Piskanaka joan zen. Aurrena 6.000ko altuerako mendia igo zuen; ez zen urtero joaten, orduan, noski, piskana; handik hiru urteetara-edo Akonkagua egin zuen, 7.000koa eta urrena 8.000koa... Baina aurretik Pirinio osoak zeharkatuak zituen, nik ezagutu aurretik, ibilia zen bai Suedia aldetik, Mont Blanc eta horiek denak korrituak eta beno, bere ilusioa zen horixe.

—Euskararen ilusioa ere ez txikiena.

—Berak, orain, euskara aldetik garrantzia ikaragarria ematen zion lege aldetiko hiztegi apropos bat egiteari. Bileraren bat ere egina zuten Gasteizen eta bazen hor foilloiren bat edo beste. Izan ere, hitz teknikoak-eta nola badiren, bada --nik ez dakit, ez naiz jakitun horretan--, edozein hitz hartzen dela erdaratik,

euskarazko bukaera jarri eta kito. Anttonek zioenez, auzi batean oso inportantea da interpretazioa eta hitzak izan behar zutela juxtuak, esan nahi dena interpretatu behar omen dute. Bestela, anbiguitateak badaude, akabo! Hortan denbora asko ematen zuen.

—Eta abertzaletasuna gauza guztien gainetik, ezta?

—Bai, baina abertzaletasuna kritikoa praktikatzan zuen. Ez zuzendaritzak esanda bezala segituz, baizik eta bere erara. Ondo analizatuz asuntuak. Uste dut ezagutu duten guztiek esango dutela, zerbait bazion beti emango zituela argumentuak eta zergatiak. Gu, hainbeste argumentu ez genituenak, ez baginan ados ere, gelditzen ginan hala-moduz: «Honek argumentatu du dena, eta guk ez dugu kontrarik. Beraz...».

—Errezelo batzu ba omen zituen berak eta izan omen ziran berarekiko ere. Hitz potoloak ez baino nahiago bide zituen ekintzak, ala?

—HBren Mahai Nazionaleko zenbait jende kritikatu izan du, euskararekiko zuten jokaeragatik. Inportanteak dira beti ere ideak, independentzia, sozialismoa-eta. Pixuzkoak, baina Herri batek benetan Herri bezala funtzionatuko badu, bere hizkuntzari gehiago begiratu behar diola zioen eta euskarari ez ziotela behar besteko begirunerik hain-

batek. Geroz eta gehiago ematen zaio euskarari zirkulu horietatik, baina urte asko dira horren alde zegoela Antton. Beti kritikatu izan ditu jarrera horiek eta nola min ematen zion horrek, aidanez, jende askori, bada, ondorengoak...

—Zer moduz eraman zuen zure gizonak bere karguekikoak, Gernikako Juntetako istiluak, gartzela, e.a.?

—Beno, berak ondo. Bere ingurukook okerrago pasa genuela esango genuke. Berak ez zeukan kezka larririk, kartzelara joan behar bazuen joateko ere. Ondo. Bestalde, Monzoni Belodromoan omenaldia egin zitzaioneko arduradun ere izan zen, han ere izan zen arazorik. Mogida txiki batzu izan genituen baina hortik ez zen pasa.

—Beraz, errealista izateak ez zion ezer kentzen idealista handi bat izateko.

—Halaxe da. Hark egiten zuena, gure bizimodua ziurtatu eta berea, berriz,... Mendira joateko irriki hori ere zer zen bada?

—Bai, bai. Nork agintzen ote zion Anttoni ere, beste askoren antzera, mundu honetan egiten zituenak egitea, bizitzako mila modutako saltsetan sartzea?

Altzagako Herriko Etxean bada inskripzio bat zera dioena: «Herri txikietako gizon handiek egiten dute Herria handia». Ez da gezurra gero!

BERTAKO EKINTZAK BULTZATZEAN DATZA KAKOA ETA BESTE POLITIKA

Kepa Korta: «Gai ugari bailada mailan aztertu beharrekoak»

Aitor Larrañaga
Jon Mikel Arano



Giza-eskubide delakoak aspalditik izan ditu gogoan eta besteengatik zerbait egiteko, bereziki txiroak eta marjinatuak laguntzeko, aukeratu zuen abogadutza, aitortu digunez. Kepa Korta, 31 urtetako ordiziarra, Ordizia bezain herri sinboliko bateko alkate, Goierriko Herrien Ekintzako lehendakaria, ezkondua da eta orain dela gutxi jaiotako alaba baten aita, bere kontzientzia-eragozle iraganaz hasi zaigu hitzegiten, bere gaztetako hautsak nolabait harrotzearen elkarriketaren motorrak berotzeari begira.

— Kontaiguzu nola iritsi zinan alkate izatera. Hasieran zenituen helburuak betetzen al dihoaz?

— Nire abogadu lanetan murgilduta nabilela zenbait urtez, handik eta hemendik kasuak bideratzen, hauteskunde munizipalen ordua etorri zen eta hiru taldek eskatu zidaten zerrendaburu izatea. Ideologikoki gertuago sentitzen nintzen alderdi batetik eta hortik jo nuen. Nahiz eta EEkoa izan, independentetzat hartzen dut neure burua, gainera ez naiz «partiduaren aparatukoa». Ez dut sekulan arazorik izan nire posizioak Udaletxean defenditzeko. Orain arte satisfetxo nago egin dudanarekin. Ez ordea hain satisfetxo, Udaletxean sartzeak zenbait talderekin eta batipat talde marjinatekin nituen harremanak hoztu egin dituelako; ezinbestekoa da nire lekutik denon interesak defendatzea eta zaintzea Alkatearen errepresentabilitatea mantenduz eta herri osoaren aurrean dudan erresponsabilitatea gordez, izan ere batzuren interesak interes maioritarioen kontra daude eta.

— Aipatu dituzun kezka antimilitarista horiek nola daude egun Udaletxe mailan?

— Nire postura pertsonala erakunde militarrekin ez kolaboratzearena da, baina alkate bezala beste posizio bat izan behar dut. Udalak posizio gogorragoetan sartzeko mugimendu zabalago bati ekin behar zaio. Udal gehiago inplikatzuz, ezin daiteke arazoa Udal bati mugatu. Honela bihar bertan dugu bilera EUDElen, eta hor barruan MOCen eskutik mozio bat planteiatu dut hortan hasteko eta Ejerzitoarekin kolaboratzearen kontrako mugimendu bat eragin nahian. Beldur naiz erreindikazio hau ere ez ote den manejatuko. Esan beharra daukat antimilitarista naizela bai alde batetik zein bestearekiko.

— Udalak hartu duela Yoyes-i egin zaizkion omenaldi e.a.ren erantzunkizuna, oraindik uste al duzu segitzen dutela Yoyesen kasuaren sindromearen aparrek?

— Ez nuke asko hitzegin nahi asunto honetaz, nik posizio pertso-

nal bat hartu bait nuen eta postura pertsonal bezala nahi dut mantendu. Yoyes desmitifikatu beharra dago, Yoyes oso pertsona normala zen. Niretzako sorpresa bat izan zen omenaldia eta gero plazaratu ziren bere iritziak, sorpresa ona, hori leizuz geroztik gehiago baloratzen bait dut pertsona hori. Nire iritziz Yoyesen antortza edo zuzia izan behar du antzeko gauzarik berriro gerta ez dadin ziurtatzeak, hortik mantendu behar delarik bere oroitzapena.

— Udalak hartu ditu zenbait erabaki heriotz-zigorra dela, Amnistia Internazionalaren inguruan e.a. Modu honetan irabazi duen progresista sona zure eragina izan daiteke?

— Izan daiteke, bai; oso inportantea da jendeari mezu hori bere globaltasunean ikustaraztea. Nik uste dut oso partzialak garela, eta gauza bera batzuek egiten badute ondo dagoen bitartean, kontrakoek eginez gero gaizki dago; Giza-Eskubideek markaturiko erizpide hori nagusitu behar zaigulakoan gaude. Partzialkeri horretan segituz gero Alema-

nian gertaturikoa gerta dakiguke hemen ere: momentu batetan pertsona normalek, pertsona onek ikusten zuten mundua nahikoa era manikeista batetan; hori oso grabea da eta beharrezkoa da autokritika sakon bat bakoitzaren aldetik. Honekin lotuz Bertolt Berchtek egin zituen bertsoak oso adierazgarriak dira.

— **Beste posiziotatik ere esan daiteke, presoen familiartekoei adibidez, errugabeak, kezka humanista horrena ez dela denentzako berdin.**

— Nik lagunak izan ditut eta oraindik dauzkat jarrera horietan baina egunkari batetan irakurri nuen moduan, Irunen hildako bietakoren baten gainean oso sentimentalista zela, 13-14 pertsona hil dituen oso sentimentala izango da, baina niretzat oso gogorra da.

(*Udaletxean gaude bildurik, Iraitlak 27 egun ditu —«Gudari Egun»— eta kanpoan borroka armatuaren aldeko oihuak entzun daitezke.*)

— **Animalia politikoa bihurtu omen zara: hasi abogadu, Udal baten buru eta zurrumurruak diotenez Kongresura joango ote zaren.**

— Ni hemen nago eta nire asmoa da hemengoak bukatzea. Nik ez dakit zer gertatuko den beste horrekin. Momentu batetan Kongresuko atarako balitz ba hara joango nintzateke. Inportantea da politikoa Udal batetan egotea, hemen sentitzen bait dira gertutik herriaren problemak.

— **Goierrri hartu nahi dugu hizketagai. Goierrriko Herrien Ekintza eta Goierrriko Alkateen bilere-tako bultzatzaile zaren aldetik, zer deritzozu hainbeste aipatzen den Goierriren deskoordinazioaz Euskarari, Kulturari eta Komunikabideei dagokienez, azken finean Goierrri bere osotasunean hartuko duen entitaterik ez izateaz. Ez al dira mankomunitate puntualak sortzen eta kitto?**

— Goierrriko Herrien Ekintza oso esperientzi berria da, ia 2-3 urte martxan jarri zela, eta oso ona gainera. Une horretan, enpresa handienak, behinik behin, sartu ziren Goierrriko Herrien Ekintzaren barnean, Lanbide Eskolaren Juntan. Argitu beharra dago Goierrriko Herrien Ekintza oraingoz soilik ardurtzen dela Lanbide Hezkuntzaz, Kulturen e.a. lanik egiteko ahalmenik gabe.

Esan daiteke Goierrri Lanbide Eskolako batxea pasa dela, aurreko ikasle kopurua gehitu egin da, orain 900

lagun daude. Langabeziaren arazoa-ri aurre egiteko ezinbestekoa da formazioa hobetzea eta zabaltzea. Hone-l, Ordizian badaude 40 lagun Ofizio Etxean eta beste 20 Tailer Okupazionalan, e-dukzioa hauek baidara mailara sartu nahi direlarik.

Goierrri osoari begira ezin da ahaztu hain historia luzea duen «Aralar-Enirio» Mankomunitatea. Alor honetan azken bi urteotan aha-legin handia egin da Aktuazio plan bat aurrera eramateko jasaten ari den desforestazio eta desertizazioari aurre egiteko sektore produktibo eta ekologisten arteko orekaren atzetik. Aralar oraindik ere oso egoera lar-rian dago eta neurri hauei esker oraindik buelta ematea dagoelakoan nago.

Goierrri baitaratuko duten entitate globalak behar ditugu, eta iritzi hau nahikoa hedatua dago. Gai asko dau-de bailada edo mankomunitate ba-rruan hitzegin beharrekoak, askotan posible da teknikari bat konsegitzea gauza askotarako bailada bezala egi-nez gero eskaera. Bailadan 45.000 lagun daude, kopuru on bat ekintzak elkarrekin aurrera eramanez ahal izateko.

Euskarari dagokionez Udal-Eus-kaltegiak mankomunitate baten bar-nean jarri nahi ditugu. Urbanismo gaietarako bailada-bulego bat egin dugu bailada-ordenazio bat era ego-kian burutzeko. Ezin da onartu Ki-roldegiekin egin den astakeria, mi-lioiak eta milioiak eta gainera man-tendu beharra. Bestalde, hor dugu baita ere eskualderako den Arriaran-go Zabortegia, urte bukaerarako martxan izango dena. Mankomuni-tate puntualak ugaltzen diren hei-nean nabarmenago ageri da Mankomunitate global eta indartsuagio ba-ten premia, koordinazio serio batek ekarriko ligukeen erreztasun eta po-tentzialtasun oparoari ezin zaio ihes egin.

Goierrriko Herrien Ekintzaren aipatu ahalmen falta dela eta, egin nahi dena da Goierrriko Alkateen Bi-leren bidez osatu. Hilabetero, bi hi-labetero bilera bat eginen dugu baila-dako Alkateen artean. Ekipo Tekni-koaren eza da ikusten dugun arazo nagusia, erabakiak benetan bete ahal izateko ezinbestekoa da atzetik eki-po teknikoa izatea.

— **Zer dugu Goierrriko herrien arteko garraio publikoaren pulamen-tu kaxkarrak?**

— Ataundik Zaldibira joateko 2-3 autobus behar dira. Diputazioa estu-dio bat eginen ari da honen gainean, antepioektu bat bazen eta horren

arabera 16 autobus baldin bazeude 9tan jartzen zen zifra egokia: linea luzeagoak, autobus merkeagoak, hortik jo beharra dago dudarik gabe, azpiegituren beharra ziurtatu nola edo hala.

— **Kulturaren logroak nola ikusten dituzu, borondatea bai baina gero ez da hainbeste.**

— Kulturaren zera horretan Ordi-ziak beti izan du besteak baino mo-gimendu gehiago. Kultur-Etxe bat dugu nahikoa handia; honez gain jendea hemen asko mogitu da. Talde asko osatu dira, hortik dinamizatu delarik kultur-giroa. Erabaki bat ez egon arren bailada osorako zerbitzu bezala funtzionatu du. Hor dugu adi-bidez zine-kluba, nahiz eta orain oso osasun ona ez izan. Bestalde, hor ditugu baita ere GOIART edo Ortza-dar argazki-taldea, bailadako jende-z osatuak biak. Antzeko zeregina be-tetzen dute Kirol mailan Igeriketa eta Rugby sailek.

— **Bailada zerbitzuz hornitzeko saio guztiak ez dira izan larrosabi-detik zeharko paseo triunfalak, porrota ere eman bait da, bereziki hainbat enpresatan, beren ateak halabeharrez itxi beharra izan du-tenak planifikazio faltagatik.**

— Beste lekutan gertatu den beza-la, krisia hor izan dugu, eta nahiz eta Goierrin gutxiago ukitu gaituen eta buelta eman ahal izan zaion, en-presa batzu gaizki eramanda zeuden. Hemen garai batetan dirua ikusi zen eta enpresarioek ez zuten inbertitu. Enpresariak ez zeuden preparatuta krisiari aurre egiteko eta ez zegoen kuadro tekniko kualifikaturik. Egun, egoera desberdina da, langabezi-ta-sak bajuagoak dira eta enpresen bai-tan garbiketa izan da, beste ikuspegi batetako kuadro berriak azaldu dire-larik.

— **Berriro Ordiziara bueltatuz, hemen badaude zenbait gai pole-miko eta konfliktibo: Gaztetxea dela, Arlote Irratia dela, tabernak direla, politikak sortzen duen krispazioa...**

— Gaztetxeaz esan beharra dago joaten diren gazteak tendentzi jakin batetakoak direla, beraiek ere kontu-ratzen dira ez duela funtzionatzen GAZTE-ETXE bezala. Beste leku-tan gertatzen dena ikusita Udaletxea-ren aldetik ez da oztopo gehiegi egon nahiz eta kanpoan krispazioa azaldu den.

Arloteren programazioaren %80a eskaintzen zaie Herri Batasuna ingu-ruko talde eta ekintzei; niretzat ez da beraz irratia libre bat talde politiko konkretu baten eskutan dagoen une-

tik. Informatiboak ere Udaletxearen kontrakoak dira gehienetan. Halaz eta guztiz ere Ordiziako Udalak eskuak nahikoa irekita izan ditu: Arlote Udalaren baimenik gabe sartu zen Gaztetxean. Bale!, lojiko da mantentzea eta subentzionatzea irriti bat, aldizkari bat kritikoa Udaletxearekiko, hala izan behar du. Ni ados nago irriti libreen mogimenduarekin eta niretzat oso inportantea da bakoitzak bere iritziak azaltzea, baina onartezina da bakarrik iritzi batzu azaltzea eta gainera mediatizatuta; ba hala eta guztiz ere, txinparta txoznak frontoian jartzeko baimen ezarekin piztu zen, bigarren aldia delarik gainera, azken finean Udaletxearen erabakiekiko errespetua izanik jokuan dagoena.

— Azkenean zertan geratuko da, itxi egingo al da?

— Arlote Irratiak posible du beste leku batetik emititzea, guk horretarako ez dugu pegarik jartzen. Dena

dela irriti municipal bat zertzeko asmoa badago, irriti independentea eta objetiboki jokatu duena.

— Eta tabernekin zer?

— Gune historikoan jende bat bizi da eta aldegiten ari da nazka-nazka eginda zarata gehiegi dagoela e.a.; guk gune horren berrabilitazioa egin nahi dugu jendea ekarriz. Hau konpondu asmotan tabernarekin hitzegtzen hasi nintzen. Soluzio bila hartutako neurriaren arabera taberna gehienek ez zuten lizentziakoa betetzen eta hortik jo genuen, gogoz kontra santzioak ezarriz.

— Zer esan beharrean zaude hain maiztxo Ordizia mailan ematen diren enfrentamendu politikoaren gainean?

— Askotan enfrentamendu horiek bilatuak izaten dira: arazo baten atzetik iritzi politiko batzu daude eta hori oso garbi ikusi da bai Arlote

Irratiaren kasuan bai tabernarien kasuan, azken honetan gehien mogitu direnak iritzi politiko konkretu batekoak bait ziren.

— Gizarte-laguntzaileak ere protestaka dira, bada.

— Oso zerbitzu berezi baten aurrean gaude, nik ulertzen dut langileen eskaerak bete egin behar direla, baina nola kontratatu langileak gero lanik ez badago? Ez zait iruditzen progresistena langileak kontratatzea kontratatzeagatik, diru publikoa xahutuz.

— Beste gai bat: Azoka da Ordizia sinbolizatzen duena; Feria bultzatu nahi omen da. Bestalde Eroski eta bertako komertzioen arteko gatazkak daude...

— Ordiziako feriak Gipuzkoa mailan eta beste zenbait mailatan ere salneurriak ezartzen ditu aste osorako, Boltsa moduko bat da. Datorren urteko lehen egunetik aurrera merkatal kontseilaritzako norbait izango



Ordiziako Udal Gorporazioa On Joxemielekin.

dugu hemen intzidentzia horiek iker-
tzeko eta zerbitzu eta aktibitateak
bultzatzeko. Bestalde bada ante-
proiektu bat duela 6 urte egina azo-
ka suspertzeko eta ekintza zenbaiti
bideak irekitzeko. Berehala jar dai-
teke martxan lan hori. Oso inportan-
tea da etorkizuna nola datorren ikus-
teko, feria hauek oso bereziak dira
eta.

— **Urbanismo gaiak ikutu nahi
genituzke: etxebizitza eta lurraren
garestitasuna, zonalde berdeak,
espekulazioa...**

— Nire ustez Ordizian urbanismo
on bat egin da eta hori nabaria da.
Beste gauza bat da zer gertatu den
azken urteotan: etxebizitza gutxi
egin dira eta horrek bultzatu du jen-
dearen kanporatzea Lazkaora, Bea-
saina... jendea bueltatzen doa, etxe-
bizitzak egiten hasiak bait dira he-
men berriro; etxe oso garestiak, Do-
nostiakoen pareko, baina Udaletxea-
ren aldetik neurri batzu hartu dira
halaber. Komenio bat sinatzekotan
gaude Etxebizitzaren Kontseilaritzare-
kin babes ofizialeko etxeak egiteko,
etxe merkeak, Udalak erositako te-
rrenoetan. Halako ekintzez gain, di-
rua emango dugu kasko zaharrean
birrabiltzetak egiteko, geure aldetik
etxe osoak birrabildu eta errentan ja-

rriko ditugularik, ikusten bait da
bestela erabat eskurazailak direla
etxeak gazteentzako. Kezka latza
izan du Udalak honekin eta gares-
tiak direnez gero posibilitate bakarra
errentan eskaintzea da.

Espekulazioa diozue. Izan liteke.
Baina lujozko etxebizitza horiek ba-
dute eroslerik. Horrek ez du esan
nahi gure aldetik mogitu behar ez
garenik, ezin dezaketenei aukera ga-
be utziz.

Urbanismoarekin segituz, zonalde
berdeak badira, portzentaia altua da;
Oreja-enekoa parke publikoa izango
dela jartzen du arauetan, espropiatu
egingo da; Barrena parkea ere hor
dago, Oiangu, berriz, ez dago oso
urruti. Horregatik diot nahikoa ur-
banismo ona egin dela, ez beste
hainbat lekutan bezala. Orain dela
gutxi Sestaon izan nintzen. Handik
bueltan, «hemen zeruan nago!» esan
nuen.

— **Bai, baina gaur arte lehenta-
suna «porlanaren politikak» izan
du. Hurrengoak giza-kultur azpie-
giturak izango dira?**

— Une honetan hori nabarmen-
tzen ari da. «Ormigoiazen politika»
gutxituz doa. Zerbitzu-azpiegiturak
hasiak dira, alor horiek betetzen ha-
si garela uste dut. Esate baterako,

kultur mailan, urte betean %100ean
igo ditugu dirulaguntzak, aurrekontu
horiek goraka doaz. Denbora behar
dugu aurrera egiteko, baina lehen
pausoak ematen goaz. Gure eta ber-
tako ekintzak laguntzean dago kakoa
eta ez kanpotarrak ekartzean baka-
rrik. Beste politika izan liteke hori.
Barneko harrobia landu eta fruitua
atera geureari.

— **Horren lekuko izan nahi luke
GOIERRITARRAK. Baina badi-
rudi proiektu honetan inplikatu
beharko liratekeen indar guztiak
(Udalak, elkarteak...) ez direla
guztiz ohartu orain arte. Zer dio-
zu zuk?**

— Nik uste dut guztiz inportantea
dela. Beno, oraingoz defizitariora da
eta pixkatean hala izango da, duda-
rik ez. Beraz merkatal interesik
duen jendea ez da sartuko, beraz di-
rulaguntza gehienek instituzioetatik
etorri behar dutela uste dut.

«Goierritarra»ri eskatuko nioke,
bestalde, kritikoa izan dadila, ga-
rrantzi handi-handikoa bait da kriti-
ka denok gauzak ondo egin ditza-
gun. Bakoitzak ikusteko bere iritzi
eta erabakiek beste ikuspegi eta bes-
te alde bat badutela. Arazoak kon-
pontzeko erabakiorrak dira kritika
eta autokritikak.



LEIAR

KRISTALDEGIA


Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarreratzea - Beirategiak - Orma-ispiluak

ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tlfn: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salvatore Auzoa. Tlfn: 88 60 70

BEASAIN

Ataungo Udala, kirola\$ blai



Ataun San Martingo futbol zelaia

NONDIK

Jakina izango duzue Goierriko jendeok, Ataun herrian futbol talde bat osatu dutela bigarren erregionalean jolasteko. Egia da, aspaldidanik gure herriak bazuela futbol talde baten beharra, are gehiago ikusirik bertan sortzen ziren jokalariek guztiek Lazkao, Ordizia eta Beasaingo taldeetan bukatzen zutela.

Talde honen istorioa oso motza da, pentsatu dezakezuenek. Aspaldidanik komentatzen zen futbol talde honena, eta azkenik, pertsona batzuk hartu zuten iniziatiba eta Udalari planteiatu zioten. Udalak baiezkota eman eta gero futbol-talde berri honen direktibak hiru eskakizun egin zizkion: lehena, presupuestoa betetzeko 500.000 pzta. ematea. Bigarrena entrenamenduetarako argia ezartzea, herriko «futbol zelaian» (ez ditu beharrezko neurriak betetzen). Eta hirugarrena, bileretako lokal bat ematea.

Lehen bi puntuak dagoeneko be-teak dituzte, hirugarrena aidean da-goelarik oraindik orain.

Argia ezartzeak 250.000 pzta. kostatu du, eta gehi 500.000, guztira 750.000 pzta. dira.

Kirolaren ikuspegitik aurrerapen ederra egin dugula esan behar, baina, zer gehiago atera nahi diote futbol-talde honi? Kasualitatea izan daiteke, baina iruditzen zait zer bait gehiago egiteko asmoa dutela.

ZER ASMO?

Ataunek, arazo askoren artean, etxebizitzena du larrienetako bat. Aurreko legislaturan terreno batzu

erosi ziren etxebizitzak egiteko asmoz. Baina oraingoan alderdi ezberdineko alkatea dago eta badirudi ez duela gogo handirik lehen aipatu terrenoan etxeak egiteko. Orduan etxeak egiteko beste leku eder bat oraingo «futbol-zelaia» izan daiteke. Eta hemen sartzen da futbol-taldea, zeren herrian futbol-talde bat edukitzeak, futbol-zelai neurrizkoa eskatzen du, eta futbol-zelai hau egingo balitzake, ba zaharrean etxeak egitea legoke.

Baina zer esan nahi du futbol-zelai berri bat berehala egiteak? Herrian gauzak dauden bezalam berehala ezin da egin. Beste gauza asko daude lehenago egitekoak. Nik ez dut esan nahi futbol-zelai neurrizkorik ez denik herrian behar, baina bai lehenagoko gauzak daudela. Eta futbol-talde berri honekin lortu nahi dena horixe da: Futbol-zelai berria, zaharrean etxeak egiteko. Eta galdera bat egin nahi dut hemendik: Zergatik ez dituzte etxeak egiten horretarako erosita dauden terrenoetan?

ETA DIRUA?

Lehen aipatu bezala, ekipo honekin 750.000 pezeta gastatu dituzte. Ataun herriarentzat hau diru-kopuru altua da. Orain arte, herriko sektore inportante bat joan izan ohi da diru eske Udalera eta beti esan zaie dirurik ez dutela.

Honen adibide garbia Ataungo Amnistiaren Aldeko Batzordeak laguntza eske jo duen bakoitzean, beti erantzun berdina eman zaiela: EZ

DAGO DIRURIK. Hau benetan lotsagarria, zeren bederatzi preso edo deportatu dauden herri batetan, berarekin kontsiderazio piska bat eduki behar da. Eta orain 750.000 pzta. ateratzen dituzte ez dakit nondik futbol-talde batentzat. Benetan lotsagarria.

ETA BUKATZEKO, ARGIA!

Eta hau izan daiteke (daiteke diot, oraindik ez delako gertatu) beste «pasada» bat, eta esenplu batekin ezagutaraziko dut: Pentsatu lagun talde batek gaueko 8retan futbol partidu bat jolastu nahi duela. Utziko ahal zaio lagun talde honi argia erabiltzen? Eta horrela ikusita esan daiteke ezetz. Zeren eta argi hori giltza baten bidez pizten dela jarri dute, eta giltza futbol-taldeko partaide batek dauka bakarrik.

Espero da hau ez gertatzea, baino gertatuko balitz, zertan ari gara herriar guztiok argi horren kontsumoa ordaintzen? zertarako ordaindu dute herriko jendearen diruarekin argi edo farola hori? Batzuk bakarrik erabiltzeko?

Espero dut hau irakurriko dutela Udaleko gizonak, eta holako kasurik gertatuz gero, uste dut ez dutela zailtasunik jarriko.

Ataundik, hurrenarte agur.

ATAUNDAR GAZTE BAT

**Kirol jantzieta
espezialistak**



Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

LOINAZ
Jatetxe-Edaritegia

Kale Nagusia, 23 BEASAIN

EDERGINTZA
ARETOA

Aurpegi-garbigeta
Aurpegi-tratamendua
Argizarizko Depilaketa
Depilaketa Elektrikoa
Gorputz-masaia
Aurpegi-Masaia
Manikura
Oinen apainketa

Pilar Luzuriaga

SOLARIUM

Gipuzkoa, 15-Behea. Telf: 88 23 87-88 02 9
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

G U R P I L

J.M. Iturrioz, 1. - Telf: 88 89 51
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03
20200 BEASAIN



J.M. Iturrioz, 14. Telf: 88 84 85
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)

- Hilarriak, 'panteoiak
- Sukalde gainak
- Etxe-hormak
- e.a.

ORDIZIA MARMOLAK

San Juan Auzoa, z/g. Telf: 88 08 92
20240 ORDIZIA

ARALAR

ASEGUROAK

PAPERDENDA

- | | |
|------------------------------|-----------------|
| - Bulego Tresneria | - Koadernaketa |
| - Ikastolako Materialak | - «Ercos, S.A.» |
| - «Oliveti» idazteko makinak | - Aseguruak |
| - Fotokopiak | |

J.M. Barandiaran Enparantza. Tel: 881240
20240 ORDIZIA

- Karta Zerbitzua
- Lan menuak

RUBIORENA
JATETXEA

Zaldizurreta, 7 Telf.: 88 57 60
20200 BEASAIN

JATETXEA

Euskal
Sukaldaritzan
Espezialistak

Enkarguzko Plater Bereziak
San Inazio, 15. Telf: 88 00 37
20200 BEASAIN



Goierriko ur-beharrak eta Arriarango Urtegia

Antezedenteak

1950az geroztik, Goierriko zenbait herritan (Beasainen eta Lazkao bereziki) 50-60 eta 60-70 hamarkadetan Beasainen eta Ordizian batipat izandako hazkuntza basati eta zerbitzu-aurrikuspenik gabearen ondorioz, ur-arazoa larritzen hasi zen uda eta udanezko lehorreetan eta agorraldietako beharrian nola bait erantzuteko, irtenbide-bila hasi ziren orduko Diputadurako Agintariak.

1964ean, «Gipuzkoako Lehen Sa-neamendu-Ihardunak» ospatu ziren Donostian eta bertan, orduko Diputazioko Teknikoek, txosten bat aurkeztu zuten «Edateko ur eta erabilpen industrialekoren hornikuntzarako baliabide hidraulikoak. GIPUZKOAKO HERRIEN HORNIKUNTZARAKO EGITASMOA» zeritzona.

Bertan, 'Gipuzkoan egin zitezkeen 40 urtegi ahalen artetik, batzuk erakitzeke proposamena egiten zen (1). Tolosaldean eta Goierriin egingarriak jotzen ziren anitz urtegi aipatzen zen: Elduaingoa, Amezketakoa, Ibiurkoa, Berastegikoa, Amundaraingoa (Zaldibian), Oria Garaiakoa (Segurakoa), etab. Azkeneko honek, Goierri guztia horni zezakeela uste zen (Segura, Idiazabal, Mutioloa, Zegama, Olaberria, Beasain, Ordizia, Lazkao, Ataun, Zaldibia, Itsasondo, Legorreta, Alegia eta Ikaztegieta) 1710 l/s 216.000 biztanlerentzako. Gainera, Ormaiztegi aldera ponpa zitekeela uste zuten edo eta agian bertan beste bat egin 276 l/s emateko 47.000 biztanlerentzat (Zumarraga, Ezkio-Itsaso, Gabiria, etab.). Bazen ura puska baterako!

Proiektu asko eta egintza gutxi ordea. 1971n arazo gorria zen urgabezia eta 40 urtegi koskor egin ordez, 7 handi Gipuzkoako guztirako egitea pentsatu zuten Diputazioan eta ho-



rrela, berehala prestatu zuten Pro-bintziako Baliabide Hidraulikoen Egitasmoa. Egitasmo hori, Madrileko Francoren Gobernuak Donostian uda hartan egindako Ministrari-Kontseiluak onetsi egin zuen eta Goierriin beraz, bi urtegi handi ziren egitekoak:

—Goierri Garaikoa (Segurakoa), ibaiari ura emateko. Bolumena: 16,2 Hm³. Gutxi gorabehera gaurko Larekoa halako 7.

—Eztandakoa (Gaborikoa), Goierriin edateko ura emateko. Bolumena: 8,4 Hm³. Gutxi gorabehera gaurko Larekoa halako 3,5.

Bienbitartean, Beasainek, 1972an, beharrak eraginda, Arriarango eta Makinetxeko saltoko urak erosi zituen eta 1974ean ur horiek ekarri zituen. Lehorre handietan ordea, 6l/s-raino jeisten zen ekarria.

Segura eta Idiazabalgo Udallerrietako giroak ordea, bi Udal horiek Siadeco eta Eraiki-ri azterketa egiteko eskatzera bultzatu zituen. Alternatiba berehala sortu zen: Urtegi

handi bakarra egin ordez, hainbat urtegi txiki errehaburuetan egitea. Honen aurrean eta jendeak gogor eginda, baztertuta gelditu zen Segurako Urtegi erraldoia (16,2 Hm³).

Hortik aurrera, Eztandako urtegiarengan bildu ziren Diputazioaren ahaleginak (8,4 Hm³koa berau, 1978an azkenean 7,08 Hm³an gelditua). Eztabaida gogorrek sortu ziren berriro ere eta aurkako jarrerak gogorrek Gabiria eta Ormaiztegiako Udallerrietan. Aurkako jarrera hori bideratzeko, Batzorde bat osatu zen bi Udallerrietan eta obrak hasi arren, berehala gelditu ziren.

Bienbitartean, Beasain eta Ordizia, beren kabuz ur-bila zebiltzan Santa Marina, Bidania eta inguruetan. Arriaranen 0,5 Hm³ko urtegi txiki bat egitea ere aztertu zuen Beasainek, 100 l/s lortu omen zitezkeela eta, baina bertanbehera gelditu zen. Diputaziokoek urtegi handien apostua zuten eskuartean.

Lazkao ere jadanik nahikoa estu zebilen eta Intxaustiko iturritik 0,5 l/s erantsi zituen 1.979an. Beasainek berriaz, Matximentako ponpaketa

Batzarraldian eta EA, EE eta PSOEk aldiz aldeko iritzia azaldu zuten. Aurkako jarrera azaldutakoen artean, EAJkoek ondorengo arazo gauek egotzi dizkiote Arriarango Urtegiaren proiektu horri:

—Presa, azkenaldian hemen egin diren guztiak ez bezala, hormigoiezkua izatea eta ez harrespilazkoa. Bertako harbelak ez bide du bario harrespila egiteko, baina bertan dauden argilitek bai. Bestela, Matximentan harrobia ireki eta handik ekarri beharko litzateke.

Lurrikara edo leherketa baten kasuan, askoz ere segurtasun handiagokoa dateke harrespilazkoa, ezen, azkenekoa pitzatu eta apurka apurka hustuko bait litzateke eta hormigoiezkua aldiz kolpean, uholde kontrolaezina sortuz. Hau, Diputazioko Teknikariek ere aitortua dute (Lazkao aldizkarian 1989an). %20ko kostu gehigarria eranstean diote Matximentatik harria ekartzeari. Agian ez litzateke hainbeste kostako argilitekin eginda, baina aurkako eritxidunen ustez, hoonelako garrantzia duen obra batean, %20 gehiago gastatzeak merezi du segurtasun-mailarik handiena lortzearen.

Beasainmendiko erreasto-iturburuetan jasa handiak direnean euri-urak bildu eta Arriarana eramateko ur-harrerak, alferrikakoak erizten dira, 0,5 hm³ inguru urtegia hazteagatik. Milioi mordera horretan xahutzea (700 inguru) ez dute nonbait gaizki ikusten alde daudenek. Harrespilazkoa egiteko %20 gares-

tiagotzea agian bai. Eranskin horiek garestiagoak dira %20 hori baino. Hau da aurkakoez egindako kritika.

Azkenik, Arriarango urtegia, 200 l/s edateko ura emateko eta 50 l/s errekarri emateko aurrikusita dago Diputazioan. Errekari eskeinitakoa oso eskastzat jo du opsizioak eta arazoa areagoa dela azaldu, ezen Goierriko egitasmoa burutzeko 3. Urtegia, Zaldibiako Amundarain errekan egiteko asmoa omen dago eta (zaldibiarren baimenarekin noski).

Hori horrela izanda, ia Beasain osoan zehar (Urbietan edo Matadero zaharraz goitik) eta areago Beasainez goitiko herrietan (Segura, Zegama, Idiazabal, etab.) erreka bultzatzeko ur-ekarrik ez dela aurrikusiten dio oposizioak eta hori ezin jasan dela Urtegia Beasainen egonda. Beraz, Lareokotik edateko ur gehiago ematea (araztegia Ataunen jarrita) eta ibairako zerbait gutxiago izatea eskatzen dute eta Arriarangoetik berri alderantziz, edateko gutxiago hartzea eta errekarako gehiago. Gainera, 3. Urtegia, gorago egitea egoziagotzat dute, hots, Ursuaranen edo Gabirian edo Zegama aldean edo... Horrela, edateko ur apur bat goiko herrietarako izateaz gainera, Oria ibaiak behar adina ur ekarriko lukeela lehortean ere eta.

Proiektua Diputazioak aurkeztuta bezala onartu zuten hiru alderdiek, fede osoa bait dute Diputazioko Teknikariengan eta harrespilazkoa asentatzeko zoru txarra egotea nahiz

Matximentako harrobitik egin beharreko harri-garraioaren inpaktu ekologikoa zituzten % 20ko kostuarekin batera proiektua onesteko arrazoi nagusiak. Inpaktuari dagokionez, errepidearena konpongarria dela zioen oposizioak eta obra amaitzean ongi utz litekeela, baina hormigoiezkoko berrogeitagehiago metroko hormatzar zuria behin-betiko inpaktu dela ordea. Bestalde, Beasainmendiko ur-harrera txiki horiek behar-beharrezkiz zituzten onesleek behar adina ur metatzeko, nahiz eta horrek agian erreastoetan behar adina ur ez jaistea ekarri berekin.

Gauzak hor daude. Herritarrak isil-isilik daude Beasainen. Arriarandarren alegazioak lurraz har-tzeari buruzkoak dira gehienbat, baina ez nolako urtegia egiteari buruzkoak. Tartean, Mendizabal Harbeldegiaren arazoa dago, konponbideren bat aurkitu beharrekoa.

Piskaka eta poliki, urtegi erraldoi astakirtenik gabe, Goierri urez hornitze bidean doa, baina, hornikuntzarik egokiena lortuko ote du bere iturrietako beharrak eta ibai-erreketak estaltzeko?

Ur Igela

(*) Ikus «Goierri urik gabe». Beasain, Lazkao eta Ordiziako Udaletako Ur-batzordeen Txostena (1982).



Arriarango presaren gaineko iritzia

Gaia arantzatsua izanik eta polemikoa bihurtzeko arrazoia ere baduenez, iritzia eskatzeari ekin diogu. EAJ eta HBren arrazoiak ageri dira erreportaian, halere azkenak idazlan bat egin du gauzak argiagotu nahian; ekologisten iritzia ere badugu; Urtegiaren projektugilea den J.M. Elosegiren adierazpenak «Lazkao Festivo» urtekarian argitaratu ziran. Beraz, Obra Publikoetako Diputatu Jaunari egin genizkion galdera batzu. Hark ez baino berriro J.M. Elosegik erantzun digu, luze. Beasaingo Alkatearekin, berriz, ezin izan gara bildu oraindano. Dena dela, inpartzialtasunaz jokatu nahirik, GOIERRITARRAren orriak zabalik geratzen dira honen ingurukoak gero ere biltzeko.

HBren iritzia

Jakina denez, Beasaingo H.B.-k aurkako botua eman dio Arriarango urtegiari, eta bi arrazoi funtsezkoenatik:

1.— Gipuzkoako Foru Aldundiak 85ko Apirilean aurkeztu zuen «Plan integral de abastecimiento y saneamiento del Territorio Histórico de Gipuzkoa» delakoak ez du Goierriko ur hornikuntza bakarrik aurrikusten, baizik eta baita Oria, Agaunza eta Estanda ibaien saneamendua ere. Hildo horri jarraituz, esan behar da Goierriko edateko uraren arazoa erabat konpondu ez bada ere, maila haundi batean arindu egin dela Lareoko urtegia martxan jarri ondoren. Ikusi besterik ez dago, aurtengo lehortearekin ez dela oraindik ur mozketarik izan. Aldiz, ibaien egoera (Oriarena batik bat) ezin daiteke larriagoa izan. Horregatik, guk ezin dugu onartu arazoaren alde larriena baztertzea eta esijitzen dugu Plana bere osotasunean eztabaidatzea eta, lehentasunak finkatuz, martxan jartzea. Hau horrela gertatzen ez den bitartean, Arriarango urtegiaren aurka egongo gara.

2.— Proiektuari berari begiratzen badiogu, 3,5 Hm³-tako urtegi bat egiteko da eta, Arriarango erreka urtegia betetzeko adina ur ekartzen ez duelarik (%67), falta dena (%33) Beasain-mendi eta Loinatz aldeko urak hartuaz osatzea proposatzen da. Horretarako, pista berriak ireki beharraz gain, inguruko baserritarrei 120.000 m² lur harrotuko zaie. Bitartean, proiektuak berak ez du inoiz justifikatzen zergatik behar den tamaina horretako urtegi bat eta ez beste bat txikiagoa. Guretzako, gure baserrietako lurretan horrelako sarraskia egiteak ez du justifikaziorik, oso ondo arazoitzen ez bada behintzat. Hori

buruz esan behar da, gainera, obra honek ukitzen dituen baserritar guztiak ez daudela berarekin ados eta aurkako alegazio bat aurkeztu dutela, guztien sinadurekin.

Azkenik, aipatu besterik ez, presari berari gagozkiolarik, hormigoiezkoa eta harrespilazkoa konparatzen badiugu, begi bistakoa dela azken hau askozaz hobeto integratzen dela inguruan, seguruagoa izateaz gain eta, guretzako, harrespilazkora jo behar dugula, garestixeagoa irtengo den arren.

Beasaingo H.B.

Diputazioko Obra Hidraulikoetako Zuzendariaren erantzuna (Laburtua)

Hasteko, obra honen kontestua azaldu nahi nuke: Arriarango urtegia posibilitatu duen Planaren asmoak Gipuzkoako herri guztien ur-hornidura kuantitate eta kalitate hoberenetan ziurtatu (agorraldietan gipuzkoar ibaiek normalean baino %30eko ur-etorri bajuagoa daukate) eta ibaie-tan arrainak egon daitezzen dituzte helburu. (...)

Norabide honetan, lehendabizi Lareoko urtegiari ekin zaio Ataun, Lazkao, Beasain eta Ordizian ur-mozketadirik egon ez dadin aseguratzearen eta Agauntza ibaiari ura botatz, bide batez amuarrainen biziluzapenaren hobe beharrean. (...)

Bigarren urratsa, Legorretatik Seguraino, etorkizunean Goierri osoaren ur hornidura ziurtatuko duen Arriarango urtegiaren eraikuntza da. Bigarren fase honetan Lareoko urte-

giak Ataun bakarrik hornituko du, gainerako ura Agauntza ibaira isuriko delarik. (...)

Arriarango urtegiari gagozkiolarik kontutan hartu beharko genuke presa batek bete behar dituen bi funtzio nagusiek baldintzatzen digutela zeharo beronen eraikuntza: urak aldegin ez dezan inpermeablea, iragazkaitza, izatea, bata, eta bildutako uraren bultzada edota oldarrari eustea, biga. Soluzio teknikoei helduz gero bi ziren ereduak: iragazkaitzak diren eta era berean uraren bultzadari ondo eusten dioten ormigoizko urtegiak batetik ala uraren oldarrari ondo eutsi arren permeableak diren harrespilazko urtegiak, inpermeabilizatu daitezkeenak ordea, bestetik. (...)

Arriarangoaren zenbait soluzio baziran eta denak izan dira aztertuak, ormigoizko pantailarekiko harrespilazkoa tartean, baina kasu honetan 400.000m³ harri karreatu behar ziren, adibidez. (...)


Azterketa tekniko ezberdinen arabera, frogatu ahal izan zen ormigoizko urtegia zela merkeen eta ekologikoen; ingurugiroaren aldetik jar dakiokeen pega bakarra paisajearen sortuko lukeen eraginaren oinarritu daiteke baina delako inpakto hori oso eskasa izango litzatekeela ez dago dudarik. (...)

Aipagarria baita ere urtegiekiko dagoen beldurra, mundu osoan egin izan diren desastre teknikoak direla kausa. Zinez, benetan, hau ez da Arriarango kasua. Arriarango urtegia egungo munduko teknologia aurreratuenera jarraiki proiektatu da, beronen eraikuntza Goierriko jende guztia hain gustora utzi duen Lareoko presa gauzatu duen eskarmentu handiko talde teknikoaren eskutik utziko duela iritziak Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Jose M. Elozegi

LEHEN ENTREGAN ARKAIKOENAK

Zegamako despektiboak



(Erredakzio taldearen oharra: autoreek despektibo hauen nondik norakoak ere eman dituzte, bai erdararako definizioa, bai hitz arruntak, ez hain arruntak edota ia desagertuak diren, bai eta gizonezko edota emakumezkoari zuzentzen zaizkion, bere laburdura eta guzti. Espazio faltak galarazten digu despektibo guztiak eta xehetasunak ematea. Hala eta guztiz, honetaz norbait interesaturik balego, badaki nora jo)

ABAKATZALLE.— Abákatza-
llea.

Beti edozer gauzari akatsak ateratzen dizkiona. «Abakatzalle galanta zian hura, ikulluko behik onana re txakurren ipurtzulon utzi zian!».

— **AGUADU.**— Aguádue.

Alkoolik edaten ez zuenari esan ohi zitzaion despektiboki, alkoola edateak gizentasuna adierazten bait zuen. «— Hi Joxe, kanpon e etzeok giro eta goaziak epelea pattar tinttat eraatea!— Ez motell, ez tiat nik pattarrik eraten.— E nian pentsauko aguadue hitzenik!».

— **AIXEBURU.**— Aixéburue.

Kaskarina. Buruarina. Tuntuna. «— Aizak Miel, ba al dakik Kaxintok oaingoan ze ein don?— Buu! hoi dan aixeburukin eozer gauza. Horrek ba al dakik zer dauken? Haizea burun da ibili mundun».

— **AIZEJO.**— Aizéjoa.

Ikus Aixeburu.

Zegamako despektiboak biltzerakoan zenbait zailtasun izan ditugu, eta horietako bat hauxe izan da, despektiboa bera, oso esanahi zabalekoa izan daitekeela. Hitz batek arlo asko uki ditzake eta esanahi zehatz bat aurkitzean datza zailtasuna. Bestalde, faktore hauek ere ahanzt ezinak dira: entonazioa, bustidurak, gorputz espresioa...

Adibidez: «Gure attona ttente asko do oaindio», esan, edo «Ttente hago ba heuñio ezer esateko» esan, erabateko aldea dago. Lehenengoak maitasuna, goxotasuna adierazten badu, bigarrena aldiz despektibo hutsa da. Bustidurak ere zerikusi haundia du: *Ttuntun* esan, edo *tuntun* esan, ez da berdin.

Despektiboak definitzeko orduan, ia gehienak hiztegieta aurkitutako sinonimoez baliatu garela adierazi nahi dugu, hitz horrek Zegaman duen sinonimoez alegia.

GOIERRITARRAren lehen alerako hautatu ditugun despektiboak gutxien erabiliak dira.

Edurne eta Amaia Alustiza

— **ALESTRAJO.**— Aléstrajoa.
Gauza estrabaganteak (kontatzea). «Gaur e bazeukan harek alestrajoa pranko kontatzeko».

— **ALPROJA.**— Alprójea.
Zital. Gizatxar. «Alproja alena, oaiñ e eindik horrek eiñ beharrekoa!».

— **ARRANPALO.**— Arránpalo-
soa.

Kexatia. Iskanbilaria. «Hau bai gizon arranpalosoa: bost xentimon pupue ta hamar xentimon trapue dauke!».

— **AUBERO.**— Aúberoa.
Hitz harro. Handinahi. Harro. «Kontutan aítzea gustatzen zaio baño aubero xamarra da».

— **AUZABAL.**— Aúzabala.
Kontuak banatzea, besteen mixeriak zabaltzea gustatzen zaiona. Ezer isilik gordetzen ez dakiena. «Hi ai haiz dakitzenan danak esan da esan. Auzabal hoienguruz zenbat eta ixillago eon, hobe! Ez al dakiñ, etxeko sue etxeko hautsek emendau behar do-la?».

— **AXALKOA.**— Axálkoa.
Gauzak non gordetzen diren zain egon eta gero lapurtzen dituen. Lapur. «Segea ta segapotoa falta ituk, Peru axalko hemen izan dek».

— **AXANPOSO.**— Axánpsoa.
Kexatia. Zaratatsua. «Étze kiak ze eingoon baño axanpea etaatzeik behintzet!».

— **AZKALUZKAL.**— Azkáluzkal.
Fundamenturik gabe. Lana eskutatik atera ezinda. «Hortxe dalle sukaldea jaso ezinda, azkáluzkal».

— **AZKULU-MAZKULU.**— Az-
kúlu-mazkulu.

Zer egiten duen ez dakiela dabilena. «Han tzellen Pello, azkulu-mazkulu, ze eiten tzon arrastoi pe».

— **BAGI.**— Bágie.
Geldoa, ibiltzeko nekea duena. Animaliei ere esan ohi zaie. «Lengo aten zuen laun hori ikus non kalen bagi bagi beti bezela».

— **BEARGITE.**— Beárgitea.
Kaltea. Hondamena. Pertsonak, abereek edo eguraldiak sor dezakete. «Aurtengo edurte honek soron beargite majoa eiñ diu».

— **BERANGA.**— Beránga.
Makala. Debila. Ahula. «Juana beti izan da berangea».

— **BERRIGOXO.**— Berrígoxo.
Leku, lan, neska... batekin soseatzan ez dena. «Joxemanuel behintzet berrigoxo majoa dek, oaiñ neska batekin geroxio beste batekin».

— **BUERDA.**— Buérdea.
Zarata. Buila eta nahasketa handiak. «Ehun milla frantses balere baño buerda geyo do hemen».

— **DIRUGOSE.**— Dirúgosea.
Diru zale. Zimur. Zeken. «Lontxo re dirugosek galdu zian, aizkenen etzioan iñook e kasoik eiten!».



Aizkorri mendizerra. Zegamatik ikusita.

— **DEBANERO.**— *Debáneroa.*

Etxe kalte. Ondatzaile. «Etxeko diru apurrek e beala jango ituk hik demonio debaneroa».

— **EINKA.**— *éinka — einka-einka.*

Ezinean-ezinean. «Gaur Martiñ einka-einka etor da, hankea hanken paren pasau ezinda».

— **EKEKERO.**— *Ekékero.*

Ez du esanahi berezirik. Ipurdia bistan duten haurrei esan ohi zaie. «Tapau zu ipurdi hori ume, ekekero esango izue ta!».

— **ELKAR.**— *Elkárra.*

Ezertarako balio ez duen pertsona edo lurra. «Neska elkar horrek parrandakore ez tiñ balio». «Terreno elkar hontati ez tiau labore haundik etaako!».

— **ELKARREXKERI.**— *Elkárrexkerie.*

«Elkar»-en bariantea da. Ez dago kio lurrari, egoerak adierazteko erabili ohi da. Ezereza. «Gu beti elkarrexkeriñ bizi beharko deu, mixerie atariko ateaño etaatzten deu baño atzea leihoti sartzen tzaku».

— **ELKOR.**— *Elkórra.*

Egoskor. Tematsu. Setatsu. «Ez ten ba pentsauko elkor horren iritzie kanbiatzeik?».

— **ENASA.**— *Enása.*

Beti emakumeei zuzendutako hitza da. Baldarra. Axolagabea. Narratsa. «Ez tiñ oso txukune eukiko enasa horrek etxea!».

— **ENBOITU.**— *Enbóitu.*

Gorputza gogortu, torpetu. «Hain beste ordu exeita eoten бага, beala enboituko ga».

— **ENPARAGARRI.**— *Enpáragarrie.*

Amorregarria. Ernegarazten duena. «Nazkauta nauke oaintxe enparagarri horrek, umea eunero nearrez uzteit eta!».

— **ERRETXIÑE.**— *Errétxiñe.*

Oso jenio txarrekoa. Ipurterrea. «Eama zue ume hori lota erretxinduta do ta».

— **ERREUS.**— *Erréuse.*

Menosa, eskasa, akatsduna. Gauza eta abereengatik esan ohi da. «Erosi nonen e erreuse zan eta ez tit asko irauñ».

— **ERRUKIN.**— *Errúkiña.*

Penagarri. Errukarri. «Gaizkitxo biziko haiz hi, errukiña halakoa!».

— **ESKARNU EIN.**— *Eskárnu eiñ.*

Burla egin keinuz. «Nei eskarnu eiteko heu jaxoa hago ta!».

— **ESKABIOLAKERI.**— *Eskábiolakerie.*

Aldrebeskeria. Itxurarik gabeko gauza. «Majiñat eskabiolakeri eiñ tzon harek bere denboran».

— **EZKERTI.**— *Ezkértie.*

Susmagarria. Zalantzazkoa. «Lan hau ez tek eozeiñi ematekoa ta ezkerti horri gutxigo».

— **EZIGAIZTO.**— *Ezígaiiztoa.*

Hezikaitz. Aberengatik ere esan ohi da. «Ume bihurri hura ondo ezigaiiztoa zan».

— **ELAATZA BAÑO BELTZA-GOIAZAN.**

Azal beltzaraneko pertsona. «Moro jende hori elaatza baño beltzagoa dek motell!».

— **IZUKA.**— *Izúke.*

Izua, edozer gauzaz ikaratzten dena, pertsonengandik iheska dabilena. Abereei ere badagokie. «Neska, neska! hire attek garai baten ni nitzela izukea zionan, baño hi hago hi handi honeakoa. Burue ttentte eaman behar din hire jirako mirabeak erostunen bat portunauta re!». «Koadro oneko ganadue dek baño izukea motell, zeñek eskue eraantsi horri?».

— **ITAULIK JOTA EON.**—

Geldi egoten ez dena. «Eon hai geldi motell, itáulik jota al hago ala?».

— **KALLARRA.**— *Kallárra.*

Arlotea. Eskastuta dagoena. Narratsa. «Mugabarru hontako negumutillik kallarra bai, aurten Anixitok billau dona. Billatzea re aiñ gizon adore gutxikoik!».

— **KATAMALO.**— *Katámaloa.*

Xelebre janzten denari esaten zaio. Mozorrotzen denari ere bai. «Txukuñe alle motell, ez al euen beste erro-paik? Katamaloa!».

— **KOKILDU.**— *Kokíldu.*

Atzeratu, gelberatu, beldurtu. «Ez ta gizona beti kokilduta dona».

— **KOLLON.**— *Kollóna.*

Koldarra, ollo, txepel. «Gu beti kollonkerik galdu gaitun, superbie re, bee neurri baten dirukiñ e ordaintze ez tana a geo!».

— **KOTTA.**— *Kóttea.*

Norbere mixeriak kontatzea bere buruak erruki emango balio bezala edo. Aiuma. «Bakarrrik bizi al haiz? Zeñei kontatzen dion ba hire kottak?».

— **KUSIÑE.**— *Kúsiñe.*

Mizkin. Miko. Edozein jan gustatzen ez zaiona. «Ai ume ume, gue ama zanak talo atekiñ lau eiten ikasi zon urten, arrapau bagendu holako kati-llukara esnea, ziplo ustuko gendun!».

— **LAMOSO.**— *Lamósoa.*

Pisu. Aspergarri. Gogaikarri. «Liburusaltzalle lamoso bat etor tzat da eziñ nola ate ondoti kendu!».

— **LITRI.**— *Líttrie.*

Milindria. Leuna. «Ez tek ba pentsauko litri hori odollik eiten hasiko anik?».

— **LUKUR.**— *Lúkurre.*

Zimur, diruzale, zikoitza, zekena. «Bienke, egie dek bai biltzallek banatzallea re izaten dola; Sakoneko Martixiok lukurkeriñ amorratzen ingurau-tako txanponak, ondo astinduko zituk hor gelditu dan seme zurruterok». «Haundie ein dek motell, Jaxintona etxe-erre esken jutea re. Ez al ekiñ horrek lukurkeriñ poderioz begiko zamarrea re ez diola iñoi opatzen?».

— **ÑAÑARRO.**— *Ñañárroa.*

Txikia, kaxkarra, eskasa. «Motiko ñañarro horrek irazi al dik korrikan?».



«KE ARTEKO EGUNAK»

Lehen euskal luzemetraia izenarekin bataiatua izan den pelikula honetan aspaldidanik zinegintzaren munduan ezaguna den Antton Ezeizak hurbilekoa eta bere-berea izan behar duen gaia ukitzen du: garai batean Mexikorako bidea hartu zuen euskaldun baten euskal herriratzea. Halere ez dirudi autobiografikoa denik, nahiz eta autoreak zein pertsonaiak, biak, borondatezko exilioa hautatu izan duten. Ezeiza eta Iza-girrek filma polemikoa, kezka eta eztabaidak sortuko dituen luzemetrai bikaina burutu dute, inondik ere ez panfletoa.

Protagonista bertaritzen zaigunean hemen gauzak zeharo aldatu direla ikusten du. Filmaren hasiera ez da hain klaroa gertatu gertatzen, errealtatea eta protagonistaren oroitzapenak nahasten direlako agian.

«Hau izorratzea», dio lelo gisan ia-ia gure pertsonaiak (Pedro Armendariz Jr.) behin eta berriro. Bere haurtzaroko lagunak hemen gelditu eta bertan egin dituzte «Ameriketak». Gerra Zibilean galtzaile gertatu zirenen semeak galtzaile dira orain ere. Pertsonaia ere gerraren semea da eta eza-gutxera iritsi ez zen bere alaba gartzelan dago eta Pedrok ez daki zer egin: lagunengana jo haren askatzea jestionatzeko (azkenaldean kontrakoa egingo duelarik) ala eta ez damutzearen postura bultzatu. Bai bataren aldekoek zein besteakoek, senitartekoek, «etzazula alabaren hondamendia berriro ekarri» esaten diote.

Horrezaz gain, bizimodu

kaxkarretik iheska dabilen pertsonaiaren porrota eta krisi existentziala eta, aldi berean, ezker abertzalearen unibertsoa agertzen digu, Pedro zaharraren gisan, zeregin ez dakiela dabilen Kepak (Iro Landaluze) garai berrien aurkezleak. Elkarrekin egiten dute topo biek, Pedro eta Kepa (edota biak ez oten dira bat bera, urteen kontua izatea aldea?).

Kepa poeta, euskaldun eta gazte bat da, barren barrerendik nazio askapen mugimendua bizi duena; halabaina, aipatutako izaera hori ez dator bat eta osorik berak daraman bizitza pertsonalarekin eta horregatik batipat, bere bizilaguna den Lurdes (Elene Lizarralde) eta bien arteko liskarrak, inkomunikazioak eta azkenean bakoitza bere aldetik banatzea. Bata heldugabea agertzen den eran bestea maitatzeko eta sentitzeko gai baina gaiagoa da.

Goratzeko lana Elenere-na, ez zen erraza izango Armendarizen parean ibiltzea; beste hainbeste esan behar da Landaluzengatik (atzeraxeago geratu bada ere, gidoiak exijitzen zion hitz juxtuko izateagatik beharbada).

Istorioa ona da, ze herri honen sufrimendua gaur arte beste inork ez bezala gordin agertzeaz aparte badira intraistorio bat baino gehiago. Euskara aldetik, zer esanik ez, borobila esango genuke. Ze ikuspegitik eginga dagoen ez da gustatu izan hortik eta hamaika zer esan eman ditu. Galdera da: Noiz bukatuko ote dira ke arteko egunak, herri honen harriak?

Joxe Mari Arandia

LIBURU ETA ALDIZKARIAK

JESUS, MARIE TA JOXE

edo kasualitatearen inguruan jaio den nobela

Gurasoek orain hogeita-bost urte oparitu zidaten gorputz hau betidanik izan da katarrozalea. Nahigabe, jarabe eta limoi uren artean atxika eman izan dut hamaika negu gorri eta urdin.

Etxean, latinetik datorren «Doministikua» aipatzen zidaten, jakin gabe, noski, «Dominus tecum» edo «Jainkoa zurekin» zegoela oinarrian. Baina ni ez naiz oso kontzientea izan eta ia katarrorik izan ez banu bezala bizi izan naiz.

Atxika egin ondoren, «Jainkoa lagun!» —behiei «san blas» esaten omen zaie—, «Jesus!» edota San Frantziskoko lurrikararen antzeko doministikua egin ondoren «Jesus, Marie ta Joxe» entzun izan dut.

Azken bi urteotan nire sudurra makina bat mukizapik garbitu duen artean, nire lumak orrialde pilo bat zikindu du; nahiz eta orain,

publikatu eta gero, itxuroso samar geratu.

Etxean ere entzunda nengo mundua painuelu bat dela, eta kalean, berriz, zein zikina den painuelu hori, mukizapi hori... Bada nobela beste mundu-painuelu-mukizapi bat denez, hara bilduak ikus ditzakegu lehen aipatutako Jesus, Marie eta Joxe horiek:

Marie: alemandarra, herritarra, idealista, teoriakoa...

Joxe: nafartar euskaldunberria, herritarra, abenturazalea...

Biak, nazka-nazka eginga egoteagatik edota abentura egarriagatik, Marokko (Marruecos) aldera abiatu dira, bata trenez eta bestea bizikletaz, han kasualitatez topo egiteko: Jesus!

Gainerakoa, gusto baduzu, nobelak berak kontatuko dizu.

Patxi Zubizarreta

PAKO ARISTI, Iraileko ipuin eta poemak

Pako Aristi da Euskal Herriko idazle gazteen artean ezagunena seguru asko, periodikoetako bere polemikengatik, bai bere irudi bereziagatik, eta bai, azkenik, bere nobelen indar bortitzagatik. Kcappo eta Irene elaberri ospetsuetan sexu kontuak eta hilketak nabarmentzen ziren modu gordin samarrean. Azken liburu honetan, berriz, beste tankera bateko idazlana eskaini digu.

Pako erromantikoago bat ageri da liburu honetan. Zazpi ipuin eta hogeitalau poema idatzi ditu, udazkenetako urre kolore eder eta tristez. Poemetan, hiri handietako bakardadea, maitasun-eza da nagusitzen den sentimendua, eta egileari bere izena erabiltzeak lotsa eman balio bezala edo, Sa-

ra Balasky ezizenez sinatu ditu.

Ipuinak, berriz, herri txikietan girotutakoak dira gehienbat, baina hemen ere bakardadeak badu bere lekua. Kapitaletik herriakara etorri eta erotuz doan apaiaren kontuak, Paulino Uzkudun boxeolariarekin manager ibilitako agurearenak, maitementzen diren gaztetxoarenak eta halakoak ditu mintzagai.

Samurtasunez eta nostalgiaz gainezka egiten duen liburu beraz; egileak dioenez, bere obra guztien artean pertsonalena. Eta goitik behera negar egitekoa dela pentsa ez dezazuen, abisua, badituela han-hemenka, umore zipriztin eta tantak.

Xabier Mendiguren

MANUEL DE PEDROLO, Bigarren jatorriko makinizkribua.

Itzultzailea: Jokin Lasa

Goierritar askok, oso oso gazteak ez direnek bai behintzat, gogoratuko dute harako kantari-bikote lazkaotar hura, Jokin eta Josu, «Ez dut galdu esperantza» kantatzen zuten haiek. Gerotik ez dugu haien berri handirik izan, eta hara non Jokin Lasak euskaratutako liburu bat iritsi zaigun eskuetara.

Liburu katalan bat da izatez, eta izenburua eta egilearen izena bera ere zatar samarrak egin bazaizkigu ere, irakurri ahala benetan liburu ederra dela konturatu gara.

Argumentua zientzi-fikziozko abiapuntu batez hasten da, nola beste planetaren batekoen erasoz munduan bizirik hamalau urteko neska bat-Alba- eta zortziko urteko mulatoa —Didac— besterik geratzen ez diren. Hori ez da aitzakia besterik ordea, liburuaren mamia bi neska-mutil hauek bizirik irauteko eta mundu berri bat eraikitzeke egiten dituzten ahaleginen kontaketa bait da.

Istorio borobila lortu du egileak, aurrera egitera behartzen zaituen erritmoz eta bihozberak hunkituko dituen emozioz. Adan eta Ebaren gorabeherak gogorarazi dizkigu, batzuetan eta Robinson Crusoearen pasadizoak besteetan, eta seguru asko irakurle bakoitzari zer edo zer berria adieraziko dio.

Liburu honek izugarriko arrakasta izan zuen Kataluniako gazteen artean eta bertako obra irakurriena bihurtu zuten hango ikasleek. Hemengoek ere nahi badute oraintxe dute aukera.

Xabier Mendiguren



ATZAPARLUZE dira gauak, bai,
badakit
zeren zatozela
arrats koloreko mutila
more, ñabar, beltz bait dagite
itsas ertzeke abenidetan

bai, bazekinat
baina atzaparluzer ditun
eta atzerapen minutuko hirurogei
aitzaki ekar ditzazken
ezpairik gabe
baina herioak
ez zigun itxoiten.

«Derrotaren Fabulak» liburutik
TERE IRASTORTZA

BAT, BI, HIRU, LAU
(kalejira beltza
edo euskal txaxa-txa-txa)

Maurizio asteazkenero
Ordizira abiatzen da
Hartu poltsak ta pardelak
Baserritarren perira

—Kuantoes elreló?
—Kuatromil peseta
—Hi haiz hi kabroia
—Bimilla peseta

Transistore, makinila
Eta despertadoreak
Dena salgai, dena merke
Dena made in Korea

—Lakalkuladora?
—Milsiento peseta
—Garestiegi duk
—Sorsirun peseta

Gaueskolan agertzeke
Bihurtu haiz poliglota
Lazkao-txiki joaten bazaik
Laister hasiko haiz bertsotan

—Gomasya tendraspues?
—Dosienta peseta
—Ta merkeagorik?
—Baibaña sulauta

«SUSA» literatur aldizkaritik

Xabier Mendiguren Elizegi

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 89



Jose Ramon ELORTZA

Urria hila da

Doinua: «Xarmantgarria».

I

*Mendietan tiroka
dabiltz ehiztariak
aurtengo urri hilak
ditu istoriak
mitin eta hitzaldi
politikariak
tiroen mende daude
mendi eta hiriak.*

II

*Agindutzeko prestu
kunplitzeko zabar
lehen ere jo digute
makina bat adar
izan behar genduke
aurki ondo xamar
egia baliote
ehuneko hamar.*

III

*Mila bederatzirehun
aurki da bi mila
hamaika urte gutxigoz
aurten eta urrila
propaganda eta mitin
hau da iskanbila
politiko bat bada
lehertu eta hila.*

IV

*Zerbait egin nahi zuen
ta bihurtu hilotz
fin ariko zen nonbait
buru eta bihotz
bere alderdi ona
goraldu desioz
gehiegi kargaturik
nonbait emozioz.*

V

*Horra historikoa
zure aizken arnas
danok hil behar degu
ta motibo banaz
bihotza lehertu zaizu
zure kezken kargaz
aulkia utzidezu
agur Trias Fargas.*

VI

*Beti gauza tristeak
herriak ahotan
eta amets bakarra
esnai eta lotan
aburriturik dago
lehen ere prankotan
esperantza gutxiko
zai egote hontan*



Euxebio IGARTZABAL



Mikel MENDIZABAL



Iñaki MURUA



Giza seme asko buru ariñak gera. Gauza zer eta nola dan jakin gabe, berriketan egiteko griña txarra degu.

Kristau-lkasbideko liburutxoia ere ezta-kien babalasto askok erlijioiko gauzetan beren buruak maitsu aundi egiten dituzte; ta gezur da abar berriketa utsa darietela ere, Salomonek baño ere geiago dakitelakoan daude.

Iñon diran tentelkeriak esan arren, ala ta guztiz ere, gizona okererako makur dagulako edo, askok sinistu egiten die.

Zuri ere, ene gazte, beste orrenbeste gertatzearekin ez arritu. Naiz kalekoa, naiz baserrikoa zaitugula, guraso zintzoen seme jotzen zaitut, oitura garbieten azia, Erlijio Santuko egi mardul eta mamitsuak zere biotz ondoan orain arte ondo gordea.

Baña beti amaren gonapean bezela ezin egon eta irabazi billa, emen beian ditugun ola eta lantegietara etorria zera.

Lagun oker biurrien artean, gaiztakeriak kutsatu ezzaizan ernai bizi. Birau lurrinak, liliskeri zakarrak lizundu die beren anima oiei. Lantoki oetako langilleak eta ugazaba edo nagusiak gauza bat bakarrik nai luteke, dirua alegia. Otoitz egiñaz irabazi edo zatar-keriak esanaz atera, ezta batere arretazko gauza.

Lagun arteko irakaspen gaiztoak aditze-an, lenbizi ezdituzu aintzakotzat artu naiko, gero seta okerrak akullatuta, irakaspen aiek onak dirala irudituko zaizu, urrango egirik audienak dirala esaten ausartuko zera. Ogi bedeinkatua jan oi dan bezela, kertenkeririk audienak irintxiko dituzu esanaz: Itsason-don, Ataunen, Zaldibin... eztute egundaño onelako gauzarik ikasi, oso itxutuak eta atzereak daude ango gizonak.

Ara gazte batzuen artean izandako alkar izketa:

Zer dek paper ori?

.....

Gauz onen bat bai.

Onenetakoa. Emen onenetakoak esaten dituk.

Evanjelioa izango dek.

Obea.

Ago ixilik lukainka.

Zuek illunpean zaudete.

Ta i eguzkitan? Eguzkia iretzat bakarrik egiña dala uste aldek?

Ez, danentzat egiña dek, ta danok artu bear genikek.

Guk, ertetzen dan guztian artzen diagu ederki.

Bañan nik ez.

Eu aiz urduan illunpekoa.

Eztez orrela. Lur azpian ere argia izan 'ge-nezakek.

Krisellua?

Batere krisellu gabe, lur azpian eta lur ga-ñean, eguzkirik eztan orduetan, gabaren erdian...

Ipurtargia.

Entzitezte nizaz txuliatu; adi zadazute benaz.

Egiaren argiak egiten dio gizonari argi, nunai eta edonoiz.

Ta nork emango dik iri egia?

Paper onetxek.

Ba, ba... Albistari orren egia ta astoaren arrantza or nunbait dituk.

Astoaren arrantza! Zeuek zerate zuek, zeuek, ezer eztatizutenak.

A Salomon, Salomon kaikua! Obeto egingo ukek paper ori irakurtzen baño etxeko soro bazterrak garbitzen saiaturiko baintz.

Zure amaren bularretako esne gozoare-kin batera edan zenduten Jaungoikozko sinismena lapurtu naiko dizuten gizon maku-rrik asko izango dezute. Sinismen-oni sendo eusten lagundu nailioke gaur, lenengo aldiz zure eskuetan artzen dezun orritxo onek.


Aldean eraman alde guztietara



- Gipuzkoako Kutzako Txartela aldean eraman egunera egoteko.
- Diru-arazorik ez izateko.
- Kutzako zerbitzu guztiak eskura izateko modu automatikoan.
- Ordu-arazorik gabe.
- Edozein dendatan ordaintzeko modua izateko, dirua aldean eramaten ibili gabe. Eroso-eroso.
- GK Txartela duzu praktikoena.
- Oraindik gabe bazaude, eskuratu azkar.
- Gipuzkoako Kutzako GK Txartela aldean eraman alde guztietara.

GK:

GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA



tiiri~tarta...!!